

Arrasate

1988ko
Maiatzak 22
408. zenb.



IKUSPEGIA: ANDER ETXEBERRIA • KIROLAK: URTZI AMIANO
GURE ENPRESAK: EKILORE • KANPOAN BIZI: I. I. MONDRAGON

Kabía

ALTZARIAK



APAINKETA

Konfiantza osoz.

Gipuzkoa Etorbidea, 28 • ARRASATE • Tel.: 79 27 70

...iturrira Bartolo nahi badezu etorri...

Hau idazten dudanean amaitzeaz dago San Frantziskoko biribila eta hango iturri dotore-dotorea. Bilbon, Donostian edo Gasteizen daudenak baino gutxiago izango ez den kale apaingarria. Agian, honen ostean Guggenheim, Kursaal edo metro arina bezalakoak etorriko dira guregana.



Ander Etxeberria

Hala ere, arazo bat izaten dute iturriek Mondragoen. Denboralditxo bat igaro ondoren, gauza guztiak bezala, hondatu egiten dira.

Eta konpontzen badituzte ere, beranduago berriro ura botatzeari uzten diotenean, horrela geratzen dira, siku. Esandakoa egiaztatzeko, kalean bueltatxo bat ematea besterik ez dago.

Maalatik hasiz gero, hango biribilean

ur putzu bat aurki daiteke; denbora luze ez dela, ur zorrotada txiki bat botatzen zuen behetik gora. Eta eskuinera jotzen badugu, Iturbide Egoitzara helduko gara; parean dagoen iturri-eskulturak aspaldi utzi zion egin behar zuena egiteari. Arazoa ura behetik gorantz isurtzen duten iturriena da? Izan ere, denok dakigu horrelakoek grabitatearen

indarra kontra daukatela. Baina pasieran segitzen badugu eta Santa Barbarara igotzen bagara, berehalaxe

konturatuko gara aipatutako hipotesia okerra dela. Erdialdea zaintzeko moduan dagoen dragoiak urte asko ez dela sua barik ura botatzen zuen, eta goitik behera kasu honetan. Gaur egun agortua dago; bere aho handiak ez die inolako ikararik eragiten euliei. Azkenik, nahiz eta seguraski "uraren ibilbide" hau luzeagoa egitea posible izango den, justu dragoia baino beherago dagoen iturriari, edateko ura oraingoan, orain dela hilabete gutxi eman diote baja. Harrezkero, egarri daudenak herrira jaitsi beharrean dira.

Azken finean, kontua da iraungipen data izaten dutela. Beharbada horrela izan behar du eta, dragoiaren azpiko iturrian izan ezik, ez du merezi dirurik xahutzea bistaren atseginerako balio dutenen konponketan. Dena dela, nire ardura futbolarekin lotua dago gehienbat. Hau da, San Frantziskoko iturriak operatibo jarraituko du Mondra hirugarren mailara igotzen den egunean? Telebistak erakusten duenez, munduan zehar iturrien inguruan ospatzen baitituzte garaipen handiak. ■

"San Frantziskoko iturriak operatibo jarraituko du Mondra Hirugarren mailara igotzen den egunean? Munduan zehar iturrien inguruan ospatzen baitituzte garaipen handiak"

"Estrategikoa ez da enplegua sortzea jendea erretiratuz, benetan estrategikoa da enplegu sorkuntza ekimen berrien bitartez".

Jesus Goienetxe

953

AEDko bazkideak

Sortu eta bi hilabetera 300 bazkide lortu zituen AEDk. Gaur egun, hamabost urte beranduago, 953 bazkide ditu. Urte hauetan bizpahiru kanpaina egin ditu bazkide gehiago egiteko. Hamabosgarren urteurrena amaitutakoan, beste bat egingo du. Orduan aise gaindituko du 1.000koaren muga.

ITURRI ONETIK

Ikastola eta Guardia Zibila

Sasoi batean, ikastolak hasi berriak zirela, Euskadiko Kutxak SFX ikastolari ematen zizkion zaharkitua gertzen zitzaizkion hainbat eta hainbat altzari, aulki eta bestelako tresna. Hori zen Arrasateko bankuetxeak ikastolari laguntzeko zuen modu bat.

Egun batean, ordea, dei bat jaso zuten Olandixon, Mondragoeko Guardia Zibilaren etxetik, eurek ere mahai batzuk eta zenbait aulkiren premiatan zeudela esanez. "Guk ez dugu horrelakorik ematen, baina!", izan zen langilearen erantzuna. "Nola ezetz. Eta ikastolari? Haiei ematen badiezue, guri ere bai", guardia zibilak. Hantxe bukatu ziren Euskadiko Kutxaren opariak.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Otolara kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Manan Porcel, Naiara Sorroza. **Publizitateak:** Kaitilin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Apurtzane Gaiñzarain (Tel.: 79 02 26). **Diselina:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemakalariak:** Lierni Urbarren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreureta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orbeagoia, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Baulista Agoria, Jose Man Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmelo Perez, Kopl, Jon Ozaita, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jassone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 26). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta intzieren erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Txos Azurmendi.

Arrasateko Udaren laguntza
 Gipuzkoako Foru Aldundien laguntza
 Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailerren laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 22**
Gauetz: Morales, San Andres
- Larunbata 23**
Gauetz: Azkoaga, Ferrerias
- Igandea 24**
Gauetz: Español, Iturriotz
- Astelehena 25**
Gauetz: Korkuera, Musakola
- Astearte 26**
Gauetz: Irizar, Erguin
- Asteazkena 27**
Gauetz: Amezua, Santa Marina
- Osteguna 28**
Gauetz: Zabala, Zarugalde

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
Igualetoia . . . 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) . . . 79 39 00
(emakumeak) . . . 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara . . . 76 55 76
- DYA**
Antzuola . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57
• Txanda Martzako: medikuntza
orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
• Espezialitateak . . . 77 05 78
. . . 77 12 64
Oñati . . . 78 08 52
Eskoriatza . . . 79 98 58
Aretxabaleta . . . 79 74 58
Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**
Oñati . . . 78 04 11
Bergara . . . 76 14 69
Arrasate . . . 79 14 39
Aretxabaleta . . . 79 10 52
Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**
Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea . . . 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00
Argindarra (Iberduero) . . . 12 01 62
Gasa . . . 900 40 05 23
. . . 79 78 44
. . . 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak . . . 79 12 22
PESA . . . 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza . . . 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**
KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterron liburutegia**
Monterron . . . 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia . . . 79 58 77

ZORIONAK AGAKO

Zazpi urte bete ditu Arrasateko Gaztetxeak. Ez da marka txarra. Ziur denak ez dituztela ondo egin, baina ezer gutxi eska dezakegu, ezer egin ez dugunok.

Jadanik gazte bakoitzak bere iritzia izango du gaztetxe-ari buruz. Denak kontuan hartzekoak dira. Dena den, gehienetan berba asko eta lan gutxi egiten dugu. Horrela gauzak hobetzea zaila izaten da.

Bukatzeko, zorte ona opa diet orain bi larunbat zuzenean aritu ziren Arrasateko talde guztiei. Baita aritu ez zirenei ere.

Jon Ozaeta

SFX IKASTOLAKO KULTURA ASTEA

Joan den astean Jzehir gastronomian sakontzeko aukera izan genuen, ederki asko, gainera.

Kultura aste honetarako bi helburu genituen: alde batekin ikasleak zein gurasoak elikaduraren garrantziaz eta bere orekak egiten digun onuraz jabe zitezela. Bestetik, herri bakoitzeko gastronomia kulturaren ondare dela eta bera ezagu-

tzea herri horren eza-gupena areagotzea dela konturaraztea.

Honetarako hainbat ekintza burutu ditugu astean zehar eta dena ezin hobeto irten da. Idatzi honen bitartez eskerrak eman nahi dizkizuegu parte hartu duzuen guztioi: langileoi, gurasooi eta ikasleoi, berariaz zeuen laguntza eskaini duzuenoi, denona izan baita kultura aste hau.

Halaber, gure esker ona eman nahi diegu ondorengo pertsona, elkarte eta enpresa hauei bereziki, beren laguntza ezinbestekoa izan baita den-dena ondo irteteko: Martin Berasategi, Jose M^a Kortabarria, Mikel Garizabal, Beñat Irazabal ikaslea, Mikel Irizar, Alberto Iturbe, Arantza Lizaso, Marta Ormaetxea, Amaia Perales, Kepa Zelaia, Arrasateko Udala, Auzo Lagun Koop.

Elkartea, Arrasate Kirolak, Al-Andalus Elkarte, Arko eta beste komunikabide guztiak, Arrasateko Txakoliña, Bidezko Merkataritza GKE, Biolur, Contenedores Galartza, Corazon de Encina Elkarte, Ebel, Ekin, Galiziako Etxea, Ikasto-

lako DBHko ikasleak, Jakion, JMA, Txatxilipurdi eta Oñatiko Ostalaritza Eskola.

Denoi mila esker. Ziur gaude jarritako helburuak bete direla. Izan ere, elikaduraren orekak duen garrantzia eta gure herriko eta beste herri batzuetako gastronomia hobeto ezagutzen ditugula uste baitugu. Azken honetan, gainera, larunbateko ekintzak, Ikastolaren Eguneko Gastronomia Feriak ahalbiderratu ditu Andaluzia, Extremadura eta Galiziako elkarrekin orain arte egon ez diren harremanak. Hemendik aurrera hasi ditugun harremanok jarraipena izan dezatela espero dugu.

Berriro ere *eskerrik asko* eta datoren urtera arte!

Edurne Erauskin
SFX Ikastolako zuzendaria

ESPETXETIK EUSKAL HERRIRA

Kaixo, Mondragoe. Arrasatear bat naiz eta Alicanteko espetxe-zoroetxe batetik idazten dizuet, nahiko ospe txarra duena, ez baita atsegina hemen egotea. Zertarako idazten dizuet? Ez jeroglifikoak egiteko, baizik eta esateko espetxe batean, nahiz eta Euskal Herritik kanpo egon, posible dela guztiakin euskaraz egitea. Ekainean hasi nintzen, Euskadira eraman nazaten, mundu guztiarekin euskaraz hitz egiten. Hamaika hilabetean horrela jardun izan dut, psikiatrarekin izan ezik. Uste dut laster noala Aita Mennirantz. Latza izan da. Laster arte, bada.

Llom Otero Uribarren
Fontcalent
(Alicante)

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 71 24 25

Zer deritzozu AEDk egindako lanari?

AEDk 15. urteurrena ospatuko du asteburu honetan.



Eladia Murillo
45 urte
Etxekoandrea

Nire semeak txikiagoak zirenean, udalekuetan ibili ziren AEDrekin. Hala ere, ez dut asko ezagutzen.




Carmen Lagullon
50 urte
Etxekoandrea

Ez dut ezagutzen AED eta ezin dut ezer esan egiten duen lanari buruz.




Charo Rojas
37 urte
Etxekoandrea

Nire haurrak udalekuetan izan dira AEDrekin eta oso gustura ibili dira. Ondo antolatuta dituzte umeentzako ekintzak.



Jon Ander Moratinos
20 urte
Langilea

Euskararen alde dagoen guztia ondo dagoela uste dut. Asteburuan jaira etortzea pentsatzen dut.



Jose Zeziaga
68 urte
Erretiratua

Badakit aspaldi lanean dabiltzala, baina, egia esan, ez dut asko ezagutzen.



Mikel Etxebeste
19 urte
Ikaslea

Oso lan polita egiten du. Ondo iruditzen zait euskararen alde egiten den guztia eta ekitaldiak egiteari ere primeran deritxot.



Espe Lizarralde
59 urte
Etxekoandrea

AEDk egiten duen lana beharrezkoa ikusten dut, bestela euskara pikutara doa. Txatxilipurdi eta EKINen lana ere aipagarria da.



Jose Mari Alvarino
42 urte
Merkataria

Txatxilipurdik umeekin lan egiten duela badakit, baina AEDri buruz ez dakit ezer.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Maita ezazu zeure burua.
Zure osasuna zaintzeko gaude!
Zatoz guregana!

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

JUBAR

ATEAK. S.L.®

• BURDINAZKO ATEAK
• ETA PERTSIANAK.
• AUTOMATISMOAK.
• KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

GoiHata S.L.

「日本語」

Japoniera, ingelesa, euskara, eta hizkuntza guztiak itzultzen ditugu

Alfonso X Jakintsua, 1 ARRASATE
Tel.: 943 - 79 25 75
Faxa: 943 - 77 13 90

Arrasate

LANAK

BITERI-GARIBAIN

AEDren jaia dela eta, bi kale hauek moztuta egongo dira asteburuan.

SAN FRANTZISKON

Asfaltatze lanak Ignazio Zuloaga, Otalora eta Pablo Uranga kaleetan.

KONTZEIÑO AUZOAN


Bidea asfaltatzen ari dira.

TAKOLON

Biribil berria egiten ari dira oraindik. Luze joko du.

AZATZA ETXEETAN

Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua egiteko lanak.



Biztanleak: 24.571
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 22



LARUNBATA 23



IGANDEA 24

Laino gehiago arratsalde aldean. Euria egin dezake eta tarteka ekaitza. Tenperaturak ez dira aldatuko.

Eguna aurrera joan ahala, lainoak are agotuko dira. Ekaitza egin dezake. Tenperaturak beharantz egingo du.

Zaparradak izango dira. Tenperaturak jaitsi eta haizeak Iparraldetik joko du.

Ilargia



ilbehera

Asteartean ilberria izango dugu.

Mezak


San Frantzisko
 (Frantziskotarren elizan Parrokia berritu arte)
Larunbatean
 09:00 (elebiduna)
Igandean:
 09:00 (euskaraz)
 10:00 (euskaraz)
 11:00 meza nagusia.
 12:30 (erdaraz)
 19:00 (erdaraz)

Uribarri
Larunbatean
 19:00 (elebiduna)
Igandean:
 11:30 (euskaraz)
 12:30 (erdaraz)

San Andres
Larunbatean
 19:00 (elebiduna)
Igandean
 10:00 (erdaraz)
 11:00 (euskaraz)
 12:00 (erdaraz)
 13:00 (erdaraz)

Santa Teresa
Larunbatean
 19:00 (elebiduna)
Igandean
 10:30 (erdaraz)
 11:30 eta San Isidron (euskaraz)
 12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila
%98



Distantziak

Arrasate										
121	Baiona									
690	579	Bartzelona								
57	170	620	Bilbo							
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela						
72	50	529	119	1.088	Donostia					
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz				
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea			
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril		
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris	

ADI! ZOZKETA MUNDIALA




Joan zaitez gure jokalariekin:

Agustin Aranzabal
Julen Guerrero
Joseba Etxeberria
Rafa Alkorta

ikusi nahi badituzu

Frantziako Futbol Mundialerako
bi sarrera zozkatzen ditugu



Espainia - Nigeria

Ekainak 13. Larunbata .14:30tan

Lehen aldiko lehenengo partida

Autobusa ordainduta



22

ostirala

■ ZINEA

U.S. Marshalls Alai zine-
man, gaueko 22:00etan.

■ MUSIKA EDONON

Arrasate Musikalek emana-
ldi ugari antolatu ditu osti-
ralerako. Al-Andalus elkarte-
an The Jurassic Band arituko
da 20:00etan. Aschero siste-
mako ikasleek Gasteizko
Maurice Ravel aretoan aritu-
ko dira, 19:30etan. Banda Txi-
kia, bestalde, Hondarribiko
musika eskolan izango da
19:00etan.

■ AL-ANDALUS

The Jurassic Band talde-
ak eskainiko duen kontzer-
tuaren ondoren, 23:00etan
Garcia Lorca antzerki talde-
aren emanaldia hasiko da.

23

larunbata

■ ZINEA

U.S. Marshalls Alai zine-
man, arratsaldeko 17:00etan,
19:30etan eta 22:00etan.

■ AMETS GAUA

AEDren 15. urteurreneko
ekitaldiak larunbat gauean
hasiko dira. Musika izango da
nagusi. Dantza egitea atsegin
dutenek aukera ederra izan-
go dute gaueko 22:00etatik
aurrera Arrasate DJ eta Ima-
nol DJrekin. Monterronen
izango den jaialdian, Naun eta
2Kate talde donostiarrak ari-
tuko dira, Ekon arrasatearra-
rekin batera. Honez gain,
Impaktes Visuals taldearen
proiektzioak ikusteko aukera
izango da.

■ TRIKITILARIEN EGUNA

Arrasateko Trikitilarien
Eguna ospatuko da larunba-
tean, eguerdiko 12:00etatik
aurrera. 14:00etan bazkaria
gingo dute Alkartu elkarte-
an. 18:30etan dantzaldia,
herriko enparantzan. Hantxe
izango dira Eider eta Oihana
trikitilariak. Bazkarira joate-
ko txartelak Hire liburuden-
dan eta Trikitixa Eskolan dau-
de salgai, 1.500 pta.tan.

■ ARRASATE MUSIKALEN
ORKESTRA

Arrasate Musikalen Or-
kestrak kontzertua eskainiko
du Oñatiko Bidaurreta monas-
tegian. Emanaldia iluntzeko
21:00etan izango da.

■ KULTURA ASTEA
AL-ANDALUSEN

Al-Andalus elkarteak
antolatutako IX. Kultura Aste-
aren egun nagusia 13:00etan
hasiko da, sevillanak dantza-
tzen. Arratsaldeko 16:00etan
Mus txapelketa azkarra joko-
tuko da. Ordu berean zabal-
duko da Faralae jantzien eta
modeloen erakusketa. 18:00etan
Sueños de Andalucía taldeak kontzertua eska-
iniko du. 18:45etan Aitor Escobar
barren gitarra saioa hasiko da.
19:15etan Rocioko koroaren
saioa. 20:15etan gau flamen-
koa, Sebastian Fraile duran-
garraren eta Paco de La Car-
lota ermuarraren emanaldie-
kin. Gitarran Aitor Escobar ari-
tuko da. 21:30etan herri afa-
ria eta 24:00etatik aurrera dan-
tza gauari hasiera emango
zaio, *Trío Prisma* taldearekin.

24


igandea

■ ZINEA

U.S. Marshalls Alai zine-
man, arratsaldeko 17:00etan,
19:30etan eta 22:00etan.

■ AMETS EGUNA

Ametsa Eraikiz Doa jai
erraldoiaren eguna izango da
igandea. Kale ekitaldiak Zal-
dibar gunean hasiko dira, goi-
zeko 10:30etan, 12:00etan
herrialde askotako dantzak eta
jaki dastaketa izango dira, bert-
solariek alaituko duten eki-
taldian. 14:30etan herri baz-
karia eta 18:00etan Etzakit
taldearen emanaldia hasiko
da. Jokin Zaitegi gunean,
berriz, 17:00etan Iparraldeko
herri kirolen ikuskizuna egin-
go da. 18:30etatik aurrera, sal-
tsa, merenge, tango eta bal-
sak dantzatzeko aukera. Gune
berean, baina kanpoaldean,
11:00etan Txikitxokoa zabal-
duko da egun osorako, gazte-
enek ere, AEDren eguna ospa-
tzeko aukera izan dezaten.
Biteri gunean, bestalde,
13:30etan Trikimailu Expres
taldearen haur jaia izango da.
17:00etan Nomen taldearen
ordua eta 19:30etan Lorelei
musika taldearen txanda izan-
go da.




**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

UGARTE

**Industria
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Faxa: 793412

25 astelehena

■ ZINEA

U.S. Marshalls Alai zine-
man, arratsaldeko 19:00etan
eta 21:30etan.

26 asteartea

■ ZINEA

U.S. Marshalls Alai zine-
man, arratsaldeko 19:00etan
eta 21:30etan.

■ KUBA ARGAZKIETAN

ASA taldeak Juan Luis Iri-
goienen argazki erakusketa za-
balduko du Harresi aretoan.
Kubaren inguruko irudiak era-
kusten dituen erakusketa
18:00etatik 20:00etara egon-
go da zabalik lanegunetan.
Larunbat eta jai egunetan,
ostera, 12:00etatik 14:00eta-
ra eta 18:00etatik 20:00etara

■ HERIBERTO ALTUNARI
OMENALDIA

Leintze elkarteak, orain
arte Ehiza eta Arrantza
Elkarteko lehendakaria izan
den Heriberto Altunari
omenaldia egingo dio
larunbatean. 18:00etan
Fermin Moruenzak hitzaldia
eskainiko du. 19:00etan
Manuel Andrade,
Espainiako Ehiza
Federakuntzako
lehendakariak eta Jose
Maria Usarraga,
Gipuzkoako Ehiza
Federakuntzako
lehendakariak egungo
ehizaren arazoei buruz
egingo dute berba.
Hitzaldiak Monterrongo
ekitaldi aretoan izango
dira. Ondoren, 21:00etan,
Heriberto Altunari
eskainitako afari omenaldia
egingo dute Bedoñako
Errastikua jatetxean.
Hantxe bilduko dira Jose
Mari Loiti, Manuel Andrade,
Enrique Garai, Jose Maria
Usarraga, Patxi Arriola eta
Felix Gordejuela, besteak
beste.

■ ARTEA AITA MENNIN

Mendeurreneko
ospakizunen artean, Aita
Menni ospitaleak arte
erakusketa antolatu du
maiatzaren 31ra arte. Jon
Balentziaga, Begoña
Kortabarria, Elizabet
Mendia, Juan Maria del
Pozo eta Manu Pagolaren
lanak daude ikusgai,
ospitaleko gaixoen
egindako lanekin batera.
Erakusketa 17:00etatik

18:30etara egongo da
zabalik lanegunetan;
larunbatetan, berriz,
17:00etatik 18:30etara.

■ UDAL PILOTALEKUARI
BURUZKO ERAKUSKETA

Udal pilotaleku
berriaren proiektua
ezagutzeko aukera
eskaintzen du Harresi
aretoan ikusgai dagoen
erakusketak. Igandera arte
egongo da zabalik.
Ostiralean 18:00etatik
20:00etara eta larunbat
eta igandean 12:00etatik
14:00etara eta
18:00etatik 20:00etara.

■ ARRASATE MUSIKALEN
IZEN EMATEA

Arrasate Musikalek
izenak emateko epea
zabalduta dagoeneko.
Ekainaren 19ra arte
luzatuko da. Arratsaldeko
17:00etatik 20:00etara
eman daiteke izena,
musika eskolako
idazkaritzan.

■ EZAGUTZA
PERTSONALA

Emakume Sailak
antolatuta, "Ezagutza
pertsonala: Autoestimua"
ikastaroa antolatu du.
Maiatzaren 25etik
uztailaren 2ra luzatuko da,
astelehen eta ostegunetan.
Saioak 16:45etatik
18:45etara izango dira,
Pepa Bojok zuzenduta.

■ KOMIKI EZ SEXISTEN
I. LEHIAKETA

Nahi duen guztiak har
dezake parte Arrasateko
Udaleko Emakume Sailak
antolatutako lehiaketa
honetan. Lanak aurkezteko
epea uztailaren 13an
amaituko da. 220.000 pta
banatuko dira saritan.

■ TXATXILIPURDIREN
UDALEKUAK


Maiatzaren 29a baino
lehen eman behar dute
izena Txatxilipurdik
antolatutako udalekuetara
joan nahi dutenek.
Eskaintza ugari, adin
bakoitzera moldatuak.

■ IKASTURTE
BUKAERAKO BIDAIA

Familia eta Gizarte
Hezkuntzarako zentruak
antolatuta, ikasturte
bukaerako bidaia egingo
dute maiatzaren 30etik
ekainaren 8a bitartean.
Nahi dutenek 79 04 59
telefonora dei dezakete.

■ ERAKUSKETA
MONTERRONEN

"Kosmos Gela:
Planetarioa eta
Astronomiari buruzko
Argazkiak" erakusketa
asteartera arte izango da
zabalik.



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETA

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 77 10 95
ARRASATE

USTEAK USTE

Autoak
sukalderaino

Europako hiri handi asko eta asko —Estokolmo, Milan, Amsterdam, Donostia...— hiriarren erdigunetik urruntzen ari dira automobilen trafikoa. Horrekin batera, oinezkoentzako kaleak ari dira sortzen.

Hiritzekoa da nola, zenbait kasutan, kontrakoa egiten ari garen Arrasaten. Egia da alde zaharrea trafikoa arautu egin dela eta ia-ia oinezkoentzako kaleak bilakatu direla. Maalan ere beste horrenbeste esan liteke. Hori ondo dago eta txalotzekoa da. Baina, zer gertatzen da beste toki batzuetan?

San Joan eta Ro-neoko etxeen artean, aparkaleku mordoa sortu ziren, kalean bertan. Gaur egun ere, Uarkapeko etxeen aurrealdean aparkaleku piloak sortu dira. Honek sifoiaren eragina du trafikoa, autojabeak aparkatzeko tokia dagoen lekuetara joaten garelako zuzenean.

Erdialdea, beraz, berebiler betetzeko arriskua dugu orain. Izan ere, erdialdea ez baita bakarrik alde zaharra. Aipatu ditugun kaleak ere erdialdean daude eta.

Joxe Aranzabal

Epaile markatuak ala abokatu zigortuak?

Ainhoa Erkizia*

“**M**arkaje” hitza azken aldi honetan gaizki ikusiaz izateaz gain, ulergaitza suertatzen zaio zenbaiti, bere egileek emandako esanahiaren azalpena entzun badute ere. Zergatik eman baina, garrantzi handiagoa interesdun hitz baten interpretazio bati eta ez benetako egileek emandako esanahiari?

Euskal Abokatuen Sindikatuak (EAS) esana zuen euskaraz aritzeagatik abokatu euskaldunei espedienteak irekitzearen aurka zegoela eta ekintza mota hauek salatuko zituela. Herriaren eskubidea da jakitea hogeitun urteren ondoren zein epailek segitzen duten ez soilik euskara ikasi gabe, baizik eta euskararen aurkako jarrerak bortitza azalduz. Euskal Abokatuen Sindikatuak haien izenak eman zituen soilik, inolako mehatxurik egin gabe eta

horrela berretsi behar izan zuen zenbait komunikabide-tan agertu ziren jarrera neurrigabeen aurrean. Hala ere, komunikabideek beren benetako jarrera ez azaltzeaz gain, estali egin dute, guztiz desitxuratutako bertsioa azalduz. Ez zegoen inolako mehatxurik egiteko asmorik eta bai, aldiz, informazioa ematekoa.

Askotan salatu izan dira izen-abizenekin euskararen aurkako horrelako jarrerak bortitzak eta ez da horrelakorik gertatu. Zer dela eta orain? Denok dakizuenez, azken aldi honetan euskara eskatzen ari zaie Justizia Administrazio-

“**E**ASK euskararen aurkako jarrerak salatuko ditu, salagarriak diren neurrian”

ko langileei abokatuen eta hiritarren aldetik, administrazioa diren heinean bertako hizkuntza ulertzeaz gain, jakin beharko luketeelako. Baina zenbaitentzat, igarotako hogeitun urte hauek ez dira nahikoak. Orain, euskara ez dela egun batetik bestera ikasten entzuteaz gain, dakigunok hitz egiteagatik zigortuak gara. Hau da konponbidea?

Guk, abokatuok, abokatu bezala eta hiritar moduan gure harremanak justiziaren administrazioarekin euskara hutsean burutu nahiko genituzke. Hori da exijitzen duguna. Zenbait epaileren jarrera ulerkaitza eta ezkorra da eskakizun honen aurrean eta merezi du herriak haien izenak jakitea. Euskalduntzen hasteko ordua dela uste dugu eta bitartekoak ipini beharko dira euskara hutsean jardun nahi dutenak aukera izan dezan.

Epaileen aldetik orain arte jaso dugun bakarra kritika zorrotzak eta zigorrak izan dira, zenbait abokaturen jarrerak salatu direlarik. Baina jarrera horiek hartu ezean, non egongo ginatete? Zer egin da Justizia Administrazioaren aldetik abokatuak espedientatzeaz gain? Hor dago gakoa, eta ez hitz baten inguruan arazoa nahastu nahian ibiltzean.

EASK Justizia Administrazioan euskara ezartzea du helburu. Euskararen aurkako jarrerak salatuko ditu, salagarriak diren neurrian.

* Abokatu



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 79 15 99

OÑATI


1 Oñatetarrak Mexikon

Juan de Oñate konkistadorea orain dela 400 urte heldu zen El Pasora. Urteurrena ospatzeko, Iñaki Zumalde historialariak *Los Oñate en México* y *Nuevo México* liburua idatzi du eta Estatu Batuetan aurkeztu. Zumaldek Oñatetarrak Mexikoko eta Estatu Batuetako historian izandako eragina jaso du liburuan. Liburua idazteko Zacatecas (Mexiko) eta Oñatiko udalen laguntza izan du.

ELGETA

2 Bideen zerga ordaindu

Elgetako Udalak, herriko porlanezko bideak erabiltzeagatik zerga ordaindu behar dela gogorarazi du. 1990ean onartutako udal araudiaren arabera, kamioiek eta traktoreek udal baimena ordaindu behar dute. Azkenengo asteetan, pinuak atera izan dituzte kamioietan porlanezko pistak erabiliz eta lizentzia ordaindu barik. Horregatik gogorarazi du udalak ordaindu beharra dagoela.



ARETXABALETA

3 EAK lehendakari berria

Aretxabaleetako Eusko Alkartasunak lehendakari berria aurkeztu zuen Alkartetxean joan den ostiralean. Lehendakari

berria Jose Mari Armentia da, Gipuzkoako Foru Aldundian funtzio publikoko zuzendari karguan lan egiten duen aretxabaleterra. Bere aurkezpenean Jon Goikoetxea Gipuzkoako EAKo lehendakaria eta Pedro Mendieta Aretxabale-

tako EAKo lehendakari ohia eta herriko alkate izandakoa izan ziren. EAK jende gazte eta berria ezarri nahi du ardura karguetan. Armentia horren adibide da.

ANTZUOLA

4 Herriko Pala Txapelketa

Bihar, maiatzak 23, Herriko Binakako Pala Txapelketako finalak jokatu dira. Valentin Zabalo-Bittor Arbulu bikoteak eta Azkarate anaien txapela eskuratzeko borrokatuko dute eguerdiko 12:00etan. Aurretik, goizeko 11:00etan, iazko txapeladunek Tomas Jaurregik eta Gotzon Iparragirrek Andres Arbulu eta Mikel Larrañagaren aurka jokatu dute, hirugarren tokia eskuratzeko asmoarekin.

BERGARA

5 Kanpoko igerilekuak zabalik

Bergarako kanpoko igerilekuak zabalik daude dagoeneko. Dena den, Bergarako Kirol Zerbitzuak adierazi duenez, oraingoz eguzkia baino ezin go da hartu.

Coain
ARGAZKI

- Errebelatuak ordu batean.
- Kodak argazkigintza digitala.
- Argazkiak minutu batean negatiboaren beharrik gabe.

Jokin Zaitegi, 8 • ARRASATE
TEL.: 943 - 79 12 75

**ASESORIA
ARRASATE**

- Juridikoa
- Fiskala
- Laborala
- Zurich aseguruak
- BANKINTER

Erdiko kalea, 32 - 1. I
ARRASATE
Tel.: 943 - 79 01 47 • Faxa: 943 - 79 73 00

Jaiotzak

- Ane Astondoa Etxebarria. Apirilaren 21ean.
- Ane Perez Acedo. 23an.
- Sheila Sanchez Garcia. 28an.
- Alexander Herrera Guijas. 29an.
- Jone Heriz Agirre. Maiatzaren 3an.
- Ander Arroyo Luengo. 4an.
- Mikel Etxegia Etxebarria. 8an.
- Beñat Iturrizotz Arizmendiarieta. 10ean.
- Gorka Calleja Zabala. 11n.
- Naiara Orgaz Pozo. 12an.
- Gorka Barquero Carmona. 16an.

Ezkontzak

- Juan Carlos River Gonzalez eta Aranzazu Badiola Bermudez. Elizaz. Apirilaren 18an.
- Pedro Mari Urteaga Elkoriribe eta Mari Karmen Otxandiano Arana. Elizaz. 18an.
- Josu Bitri Orobengoa eta Rebeca Uribarren Gimenez. Zibirez. 25ean.
- Antonio del Palacio Villar eta Estibaliz San Jose Madina-beitia. Zibirez. 30ean.
- Francisco Soto Rodriguez eta Maria Arritokieta Agirre. Elizaz. Maiatzaren 2an.
- Jesus Mari Roteta Unamuno eta Maria Tena Valor. Elizaz. 2an.
- Jose Lopez Rodriguez eta Amalia Martins Rodrigues. Zibirez. 9an.
- Josu Villar Elorza eta Arrate Lumbreras Zeziaga. Elizaz. 9an.

Hildakoak

- Julian Aranzabal Aranzabal. 84 urte. Apirilaren 29an.
- Jose Castellano Sanz. 75 urte. Maiatzaren 1ean.
- Maria Luisa Urzelai Bikuña. 57 urte. 10ean.
- Concepcion Mentxaka Turiel. 85 urte. 15ean.

Deba Garaiko UGTk kongresua egin zuen Arrasaten

Deba Garaiko UGTk kongresua egin zuen asteazkenean Arrasaten.

Besteak beste, Deba Garaiko UGTko Batzorde eragilea eta Metalaren zuzendaritza aukeratu zuten afiliatuek kongresuan. Ekitaldiari amaiera emateko, Carlos Trevilla UGTko idazkari nagusiak eta Paco Egeak, Eusko Jaurlaritzako Lan sailburuak, hartu zuten hitza.

Lan sailburuak esan zenez, Euskadin egoera nahiko paradoxikoa da. "Euskal Herriko hazkunde ekonomikoa oso handia izan da azken urteetan, baina oraindik langabezia tasa handienak ditugu. Eusko Jaurlaritzan muga garrantzitsua dugu: ezin izan dugu Inemen transferentziak lortu, oraindik gobernu zentralak gordetzen baititu".

POLITIKARIK EZ

Carlos Trevilla kritikoa azaldu zen Euskadiko sindikatuen egoerarekin. Batasun ezak eta interes nazionalistak lan inte-



Paco Egea Lan sailburua, Salva Peña eta Carlos Trevilla idazkari nagusia.

resen gaintik jartzea langileen kontra joatea dela azaldu zuen.

Gobernu sozialistari egingdako lau greba orokorrak gogoratu, UGTren autonomia argi dagoela azaldu zuen Trevillak. Alderdi sozialistak berriztapena behar duela esan zuen, ezker indartsu baten beharra dagoelako.

Bukatzeke, lan astearen murrizketa milurteko berriaren iraultzarik garrantzitsue-

na izango dela esan zuen Trevillak.

UGTko kongresua bukatuta, batzorde eragilearen eta metalaren zuzendaritzako partaideak ezagutarazi dira. Batzorde eragileko partaideak Salvador Peña, Jose Luis Hernandez, Joaquin Muñoz, Jose Gonzalez eta Miguel Tola dira. Metalekoak: Francisco Gil, Domingo Cáceres, Pedro Cáceres, Luis Dominguez eta Manuel Mateo.

Urkuluko urtegiak igoera nabarmena izan du

Apiriletik hona %10,4 igo da Urkuluko urtegiak urteko kopurua. Gaurko egunean, %98,61eko ur-bolumena du Urkuluk. Gipuzkoako UrPatzuergoaren arabera, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Soraluze eta Elgeta hornitzen dituen Urkuluko urtegia, aspaldiko urteetan

izandako egoera onenean dago. Hala ere, eta ur maila oso altua izan arren, Gipuzkoako UrPatzuergoetik adierazi dute oraindik urtegiak ez duela gainezka egin eta ez direla azpiko balbulak irekiko. Dirudenez, ura gainezka etorriko balitz, azpiko ur zaharra aterako lukete urtegi-

ko arduradunek eta ur berrira metatu.

Iaz gaurko egunean, urtegiak ur maila %79,69koa zen. UrPatzuergoak dioenez, hurrengo bi urteetarako ez dirudi ur arazorik izango denik. Hori dela eta, lehorre garaiak etorriko balira ere, Urkuluk nahiko ur izango luke.

Deba Garaiko LABek Ertzaintza salatu du espioitza egitearren

Deba Garaiko LABek Ertzaintzak Arrasateko egoitza zelatatu duela salatu zuen, joan den asteartean egindako prentsaurrean. Salaketa publikoa egin nahi izan zuen LABeko ordezkaria den Garbiñe Aranburuk "berriro ere argi geratu baita Madrilgo eta Gasteizko indar zapaltzaileek antzeko bitartekoak erabiltzen dituztela ezker abertzalearen kontra egiteko orduan".

Egin egunkariak kaleratu zuen espioitza kasua. Eginnek egindako ikerkuntzaren arabera, azken asteotan Ertzaintzaren furgoneta mozorrotu bat aparkatuta egon da LABeko egoitzaren parean. Furgonetatik segimentua eta entzun-



LAB espioitza epaitegian salatu ala ez aztertzen ari da.

ketak egin zirela salatu zuen LABeko ordezkariak.

Horrez gain, prentsaurrean esan zuenez, Eusko Jaur-laritzako Barne Sailak onartu egin zuen mozorrotutako furgoneta Ertzaintzarena dela.

Dena den, horrekin batera adierazi zuen furgonetaren lana ez zela Arrasateko LAB zelatatzea baizik eta droga kontu bat argitzea Makatzena eta Zigorrola auzoetan. LABen ustez, furgoneta egoitzaren

parean egonda, ezinezkoa da kilometro batera dauden bi auzoetan ikertzea.

Arrasateko espioitza CESIDeko kasua gogorazten duela azaldu zuen Aranburuk. "Orain dela gutxi Gasteizko HBko egoitzaren espioitza lanetan CESIDeko agenteen parte hartzea aurkitu zela eta, lotsagarria da EAJk egindako adierazpenak gogoratzea. Orain beren lan zikina ezkutatatu nahi dute, narkotrafikoaren jarraipenari buruzko kontuak asmatuz".



Arrasatekoa ez da kasu bakarra LABeko bozeramalearen ustez. Bergaran eta beste egoitza batzuetan ere espiaitatu duten susmoa dute.



Loramendi kirolak



SALOMON®



Rip Curl®

Abenturaren bila



astea bi hitzetan

■ Eguzki dorrea

Joan den asteen Eguzki dorreko horma pitzatu zen. Gertakariaren ondorioz, udalak etxeko bizilagunen segurtasuna ziurtatzeko neurriak hartzeko eskatu die dorreko biztanleei. Hamabost egunean ez badira lanak egiten, isuna jasoko lukete.

■ Autobus geraleku berriekin zer?

Eroski parean dauden Kas-konateko autobus geralekuak aste batzuk bakarrik daramate lanean, baina dago-

eneko arazoak sortu dira. Kontua da Trafiko Zuzendaritzak dirulaguntza eman zion Arrasateko Udalari geralekuak egiteko eta udalak Foru Aldundiko Garraio eta Errepideen Zuzendaritzaren baimena jaso baino lehen egin zituela. Orain, sail haren ezetza jaso du. Udalak, baldintzak onartu edo geralekuak kendu beharko ditu.

■ Andaluziako kultura

Al-Andalusek IX. Kultura Astea egin izan du azken egunotan. Kultura andalu-

ziarraren hainbat esparru eman dituzte ezagutzera ekitaldi ugariaren bidez. Bihar musika emanaldiak izango dira egun osoan zehar elkartearen egoitzan. Igandean, berri, futbito partidak izango dira nagusi.

■ Kale argi gehiago

San Joanetarako kale argi berriak jarriko dira Erdikokalen. Seguruenik ondoren alde zaharreko beste kaleetan ere ezarriko dira. Bostehun mila pta. gastatuko dira.



LABAINKADEN KONTRA

Asteazkenean labainkaden kontrako gai kimikoa isuri zuten alde zaharreko Zurginkantoin. Arrasateko Udalak gai kimikoa probatu nahi du, kalea lazteko sistemak ez du eta labainkortasunaren arazoa konpontzen. Esperimentua ondo joanez gero, gauza bera egingo litza-teke alde zaharreko beste kale batzuetan ere.

“Nafarroako Ikastolen Elkartearen gaitzespena, besteak, beste, ez da esanahi gabekoa. HBren jarrera ere esanahi gabekoa ez den moduan: zazpi kargu publiko garrantzitsuetatik hiruk atentatua gogor kritikatu izana ezin da ‘HBren sensibilitate desberdinen’ estalpean besterik gabe jarri. Ulergaitza den moduan Nafarroako Legebiltzarrak Caballeroren hilketa dela eta deitutako osoko bilkurara HBko parlamentaririk ez agertzea”.

XABIER LETONA

Argia, 1998ko maiatzaren 17an

“ATB aipatzea da nahitaezkoa. 1990ean jaio zen Arrasate Euskaldun Dezagunek (AED) bultzatuta, eta egun erreferentzia bilakatu da, bai erdietsi duen kalitate mailagatik —ezin ahaztu halaber, gerora ezagun egin den aurkezle askoren harrobi izan dela—, bai euskara hutsez aritu eta aritzen delako”.

ERIZ ZAPIRAIN

Argia, 1998ko maiatzaren 17an

PUB HAIZEA



BiRiBiL

Edari eta tabakotan espezialistak

Zarugalde, 35 • Tel.: 79 09 53 • ARRASATE



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORATZA



LOGOPEDIA ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZA ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.

Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

Jose Ignacio Mondragon / Palenciara ezkondua

Bizitza ia-ia hankazgora jarri zitaion 39 urteko arrasatear honi bere burua Fagorrek Valladoliden eskaintzen zuen langune batera aurkeztu zuten. Bera aukeratu zuten. Orduan Valladolideko Fagorreko zerbitzuetan hasi zen lanean. Orain Palencian bizi da bere familiarekin. **Jatorriz Musakolakoa, San Isidro-etara ezin etortzeak pena eman dio.**

— Zer dela eta joan zinen Palenciara bizitzera?

— Historia kuriosoa izan zen. Castellonen igarotako opor batzuetan Palenciaiako neska bat, Aurora, ezagutu nuen. Handik gutxira Valladoliden lan egiteko langunea kaleratu zuen Fagorrek. Erdi bromatan aurkeztu nintzen, neskari agindua eman bai-

nion. Hartu egin ninduten 93ko urtarrilean. Harrezkerro Palentzian bizi naiz. Aurora eta biok ezkondu egin ginen eta bi seme ditugu.

— Nolakoak dira palentziarrak?

— Jendea nahiko jatorra da. Hasieran zabaltzea kostatzen zaie, baina behin konfiantza hartuz gero, jatorrak dira.

— Palencia aldera joanez gero, zer merezi du ikustea?

— Palencia herri handi bat bezalakoa da. Lasaia da bizitzeko. Paraje politik ere badaude: aintzirak eta Erromanikoko aztarnak.

— Arrasaten nabaritu duzu aldaketarik?



— Bai, igartzen dira aldaketak. Azken aldian, San Frantziskoko biribilak, parrokiako lanek eta Eroski ingurukoek eman zidaten atentzioa.

— Herriminik bai?

— Bailara batean jaiotakook berehala sentitzen dugu mendien eta berdearen falta. Dena den, Arrasatetik bi ordura bizi naiz eta horrek lasaitasuna ematen du.

— Ezagutzen dute zure semeek Arrasate?

— Oraindik oso txikiak dira. Dena den, semeei euskaraz egiten diet etxean.

— Luzaroan ikusten duzu zeure burua Palencian bizitzen?

— Güzak asko aldatu dira eta Arrasatera itzultzea gustatuko litzaidake. Emaztea ere prest dago etortzeko.

“Ahal izanez gero, Arrasatera itzultzea gustatuko litzaidake”

Alfredo Elortzaren (ETBko botikarioaren) hitzaldia: “Azalaren zainketa udaran”

Non: EKINen egoitzan
(Pablo Uranga, 4 behea).

Noiz: maiatzaren 28an.

Ordua: arratsaldeko 15:30etan.

ANTOLATZAILEAK:




LAGUNTZAILEAK:



ARRASATEKO UDALA
Emakume Saila



EMAKUNDE
Emakumearen Euskal Erakundea



IMANOL ETXEBERRIAREN ITURRI BERRIA?



Neptuno edota Cibeles bailitzan, San Frantziskoko biribila futbolzaleen topagune bihurtu zen joan den ostiralean. Imanol Etxeberria taldekoek Athletic bigarren geratu izana ospatu zuten. San Frantzisko beharrean San Imanol ipiniko diote orain iturriari?


URREZKO ASTAKILOA

Xabier Patxi Canelok eskuratu du aurtengo Urrezko Astakiloa. Xabier Patxi xake irakaslea da eta Gipuzkoan lehenengo mailan jokutzen du. Xakea gazteen artean zabaltzeko egin ditu ahalegin handiak, txapelketak antolatzen edo San Andolingo ikastolarentzat xake erraldoi bat egiten. Zorionak Xabier Patxi!



DROGOMENPEKOTASUNAREN AURKA

Askagintzak Udaberria 98 sentsibilizazio kanpainari ekin dio. Drogei aurrea hartzea nahi du Arrasateko taldeak. Horren barruan, ekitaldi berezia antolatu zuen joan den larunbatean: Takolo, Pirritx eta Porrotx en emanaldia. Pailazok umeak eta helduak drogen arriskuen inguruan hezitzeko ikuskizuna eskaini zuten.



IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktoa

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

AL-ANDALUSEKO ERREGINA

Saioa Gomez arrasatearra izendatu dute Al-Andalus elkarteko erregina. Erregetza joan den igandean hartu zuen Saioak, elkarteak Musakolan duen egoitzan egindako ekitaldian. Erreginak bi dama izango ditu: Lorea Galiot arrasatearra eta Maria Luisa Jurado eskoriatzarra. Igandekoa aste honetan zehar izan diren kultura ekitaldi ugariaren lehenengoa izan zen.





LIBURUAK UTZI ETA DANTZARA!

San Pankrazio eguna ondó baino hobeto aprobetxatu zuten Eskola Politeknikoko ikasleek. Goizean goiz, kirol lehiaketekin hasi eta kale antzerkia, txikiteoa, txistorrada, bazkaria eta dantzaldiak izan zituzten. Bazkalosteko dantzaldia sekulako erromeria bihurtu zuten, ordurako animoso baino animosoago zebiltzaten eta.

BASERRITAR ZAHARRENAK

Musakolako baserritarrek Mercedes Garro eta Lorenzo Urrutia senar-emazteak omendu zituzten San Isidro egunean egindako bazkarian. Auzoko baserritarrik zaharrenak dira, Saburdi Berrikoak. Bazkariko gehienak erretiratura daudela eta, galdera bat datorkigu burura: Musakolan iraungo du baserririk hurrengo urteetan?



ORDUTEGIA
Asteartetik ostiralera: 9.30-19.30
Larunbatetan: 9.00-16.00

SOLARIUM
10 saio + 1 doan: 8.000 pta

Maalako Arrabala, 21-B
ARRASATE • Tel.: 77 16 31

GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Naranja Mecanica	3	3	0	0	25	14	6
Branka Taberna	3	2	0	1	18	16	4
Fraguel gol	3	1	0	2	8	12	2
AcSurkos	3	0	0	3	14	23	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Bar Estrella	3	3	0	0	10	6	6
Argi Ibili	3	2	0	1	23	6	4
Jotakabau	3	1	0	2	7	14	2
Garaje Oscar	3	0	0	3	5	19	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Irati STS	3	3	0	0	23	13	6
Aurrera Bolie	3	1	1	1	13	8	3
Lorategi Potroak	3	1	1	1	13	14	3
Pepelus	3	0	0	3	7	21	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Aldibi	3	2	1	0	16	7	5
Koka Juniors	3	2	0	1	12	10	4
Sokoakoak	3	1	1	1	10	12	3
Los Heredia	3	0	0	3	6	15	0

Emaitzak

A taldea

Naranja Mec. 11 - Ac Surkos 5
Fraguel Gol 1 - Branka Tab. 4

B taldea

Argi Ibili 12 - Garaje Oscar 1
Bar Estrella 3 - Jotakabau 2

D taldea

Irati STS 10 - Lorategi Pot. 7
Aurrera Bolie 8 - Pepelus 2

E taldea

Aldibi 4 - Sokoakoak 4
Koka Juniors 5 - Los Heredia 2

Hurrengoak

Final Laurdenak

Maiatzak 23, larunbata

10:00 Bar Estre. - Branka Tab.
11:00 Irati STS - Koka Juniors
12:00 Naranja Mec. - Argi Ibili
13:00 Aldibi - Aurrera Bolie

Azken txanpa

Zaldibarko futbito txapelketa final laurdenetara iritsi da dagoeneko. Joan den asteburuan jokatu ziren norgehiagoketan gol ugari sartu zituzten final laurdenetara pasa diren taldeek. Hamaika gol Naranja Mecanica taldeak, hamabi Argi Ibili taldeak. Irati STSkoek, berriz, hamar sartu zituzten.

Txapelketaren azkenengo aldi honetako emaitzak ikusita, jarraitzaileek finala Naranja Mecanica-Argi Ibili taldeen artean izango dela uste zuten. Baina final laurdenetan elkar ikusiko dutenez, talde batek bakarrik izango du final erdiak jokatzeko aukera.

Aipatu behar da Lorategi Potroak txapelketatik kanpo gelditu dela, golaberagea dela eta. D taldean aritu den talde honek 3 puntu zituen, Aurrera Boliek bezala, baina honek baino 6 gol gutxiago.

Partida bakarrera

Goizeko 10:00etan hasiko dira final laurdenetako neurketak eta partida bakarrera izango dira, final erdiak eta finala moduan. Hauetarikoren bat berdinketan bukatuko balitz, taldeek hamar minutuko luzapena izango lukete. Hala ere, gola sartzen duen lehenak lortuko du garaipena. Luzapenean golik ez balego, penaltiek erabakiko lukete garailea nor den.

Faboritoak

Aukera guztiak posible izaten dira urduritasunak eragiten duenean eta futbito txapelketa honetako finalaurdenetan ere edozer gauza gerta daiteke. Hala ere, badira final erdiek pasatzeko faboritoak ere. Bar Estrella, Irati STS eta Aldibi taldeak asteburuko norgehiagokak irabazteko aukerak dituzte. Naranja-Mecanica eta Argi Ibili taldeena ordea, ez dago hain argi. Neurketa nahiko berdindua dagoenez, bietako edonor izan daiteke garailea. Hala ere, Argi Ibili-uren urtea izan daiteke (gogoratu urte pare guztietan bera izan dela txapelduna eta 1998 parela dela).



Uribe auzoa txapelketa

Emaitzak

A taldea

Milan Tokao 1 - Kom. Alpar. 13
Sporting Tronp. - Trotabares -
Bar Nuevo 6 - DKB 4
Pierndoi Sath.1 - Babaja. 3
Elvis Team 4 - Dribling 8
Rotor bolbo. - Zig. Mutilzarrik -

B taldea

Medio Grano 1 - Leya TMT 0
MR Magoo 2 Kamasutra 9
Potrosorri 0 - Spoting 1
Carto. Igamo 5 - Lontxo Tab. 0
Fraguel Gol 0 - Xhaass... 1
La Ostra Azul 6 - Balon Rojo 4

D taldea

Bortxitxak 1 - Decadencia 5
Rex 22 1 - Peninger Lapsus 0
Astoen Villa 4 - Blind 6
Akta 0 - Munar Txiki 1
Txotx 3 - Hilarion Jatetxea 0
Doble Cero 5 - Borrrck & Roll 5

E taldea

P3000 4 - Ac Massive 1
Mendiza. P - Racing Mol. 1
Felp. Maldito 8 - Itxaro Pena 2
Argi Plastic 1 - Alai Gozokiak 0
Chule. Rovers 0 - Kalandrax 1

Hurrengo partidak

Final zortzirenak

Maiatzak 23, larunbata

Iturripe A

16:00 Xhass - El Milagro Bau.
17:00 P3000 - Cartonajes Igamo
18:00 Argi Plastic - Lontxo Tab.
19:00 Bortxitxak - Dribling

Iturripe B

16:00 Koma. Alpar. - Munar Txiki
17:00 Bar Nuevo - Doble Cero
18:00 Borrrck & Roll - Elvis Team
19:00 Kamasutra - Racign Mol.



Jende askok eta iritzi askotarikoak hartu izan du beti parte AEDn.

AEDk 15 urte

Laurogeigarren hamarkadan, ostera, gauzak ez zeuden bat ere ondo. Euskal Herrian Euskaraz (EHE) talde sortu berria zebilen hainbat jende ez zegoen pozik, EHE erradikalegia ikusten zutelako, estuegia jende askorengana iristeko. Zerbait irekiagoa eta koloregabea behar zela eta, bilerak egiten hasi ziren udaletxeko gela batean. “Ez genuen eredurik”, dio Iñaki Mendiguren itzultzaileak, “eta ez genekien norantz jo. Ekinaren ekinez, bilera lehorasko egin eta gero, bidea agertu zitzaigun”. Bien bitartean, Soziolinguistika Jardunaldiak egin ziren Bergaran eta euskararen egoera azter-

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak hamabost urte bete ditu. Aldi honetan egin duen lanaren eragina begibistan dago: kaleko euskararen erabilera ia hiru aldiz biderkatu da AED sortu zenetik, arrakasta handiko zerbitzuak sortu dira euskaraz, herriko 106 erakundek euren arteko harremanak euskaraz egiteko konpromisoa hartua dute, erdal ereduak desgertu egin dira OHOn, bailarako zortzi bat enpresatan euskara lan esparruan sartzeko mikroplangintzak egin dituzte, udalako langileen hamarretik zortzi euskaldunak dira... Gauza asko aldatu dira Arrasaten urte hauetan. Eta AEDk zerkusi handia du aldaketa hauekin.

gai zuten hitzaldiak egin ziren Arrasaten. Halako batean, elkarte bat egin behar zela eta, Xabier Arrutik irakasleak *Arrasate Euskaldun Dezagun* izena proposatu zuen. Eta horrela aurkeztu zen 1983ko ekainaren 13an udaletxeko pleno aretoan egin zen lehen bilera.

GEHIENAK KANPOTARRAK

Aipatzekoa da AEDko talde sortzailea osatzen zuten gehienak ez zirela Arrasaten jaioak, Euskal Herriko beste toki askotatik etorritako euskaltzaleak baizik, gehienak kooperatibek erakarrita etorritakoak.

Lehen lehendakaria, Txo-

min Otamendi orendaindarrak, Iñaki Mendiguren ezkiotarra, Mattin Amundarain eta Bittori Etxebarria amezketarrak, Rufina Olasagasti elduaindarrak, Xabier Olabarría bergararra, Mikel Lezamiz busturiarra, Jose Felix Diaz de Tuesta gasteiztarra, Jose Etxebarria berastegitarra, Xabier Arruti erreizildarra... Elkartearen hurrengo bi lehendakariak ere ez ziren hemen jaioak: Jesus Garmendia azkoitiarra eta Josemari Muxika idiazabalarra.

Euskaldunen arragoa bilakatu zen Arrasate Euskaldun Dezagun, ikuspegi eta iritzi politiko desberdinen gainetik, jendea euskararen alde lanean jartzen asmatu zuena.

PRAGMATISMOA

AED euskara bultzatzeko jaioren, baina ez zuen eskabide hutsean geratu nahi. Hasieratik garbi ikusi zuen administrazioarekin batera egin behar zuela lan: udalarekin, foru aldundiarekin eta Eusko Jaur-laritzarekin. Horren ildotik, hiru eskari egin zituen hasiera-hasieratik: azterketa soziolinguistikoa egitea, gabinetetako teknikoak eratzeko eta euskal txokoa sortzea, hirurak ere boladan zeuden eskariak. Horrekin batera, liberatu bat jarri zuen egun erdirako: Julen Arexolaleiba.

Jendeak ondo erantzun zuen hasiera hartan: bi hilabetean 300 arrasatear AEDko bazkide egin ziren. Horrek adoretu egin zituen AEDko sortzaileak.

Laster, lantaldeak antolatu ziren: lehena bazkideak lortu eta dirubilketaz arduratzeko; bigarrena ekintzez arduratuko zen. Gerora, lantalde gehiago etorriko ziren: emakumeak, komunikabideak, lana, haurrak, gazteak, sentibilizazioa...

ZERBITZUAK

1991n, hausnarketa aldi luze baten ondorioz, AED Saiolan txiki bat bilakatu zen: Euskarazko herri komunikabideak bilduko zituen elkarte sortu zuen, Arko, bere kasa lan egin zezan. Geroago Txatxilipurdi etorriko zen eta baita Euskalan eta Ekin ere, denak ere elkarte autonomo moduan lan egin zezaten. Eredua berria sortu zen herrietako euskalgintzan. Deneren artean 166 milioi pta.ko aurrekontua dute gaur egun.

BAZKIDEAK

Euskaraz komunikatu ahal izateko besteko hizkuntza gaitasuna duten arrasatearren elkarte da AED. Gaur egun 953 bazkide ditu, zazpiheun hirurogeita hamalau familiantan banatuta, halako babes eta

“Nahiz eta Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak 1983an jaiotzen, hau da, oso garai politizatu eta iskanbilatsuan, iparrari eutsi eta egin nahi zuen hura egiteko hartu beharreko erabakiak hartu izan ditu. Horretarako euskararen aldeko dinamika ezalderdikoia eraikitzea lortu zuen eta horren oinarrian herri honi egin dion aporteriaz interesgarriena gauzatu zuen: ideologia desberdinetako euskaltzaleek euskararen alde, elkarrekin, jardun zezaketela frogatzea”.

Kike Amonarriz
(*Jazten, 1993*)

“AED dinamizatzailerik aparta izan da, euskararen prestigioa lehenago inoiz lortu ez zuen mailara jaso duelarik. AEDk ongi bete du bere funtzioa, pluraltasunean tinko, eta nik esango nuke arrasatearren konfiantza irabazi duela, publiko guztietara iritsi baita gardentasun osoz. Horretantxe neurtzen dut nik AEDren arrakasta, bere irekitasunean hain zuzen, eta bide berari eutsiz gero, oso urrutira hel daitekeelakoan nago. Politikoen baimenarekin, noski”.

Jose M^a Velez de Mendizabal
(*Uztaro, 1994*)

“Nik pentsatzen dut oso garrantzitsua izan dela AEDk hamabost urteotan egin duen lana euskararen normalizazioaren bidean. Jende asko dabil hor lanean. Niretzat, hemendik aurrera AEDk bete nahi dituen ‘ametsak’ dira garrantzitsuak. Uste dut denok lagundu behar diogula eta AEDk orain arte moduan lanean tinko jarraitu behar duela. (...) AEDk dio bidea luzea dela, baina nik uste dut bide hori motza izango dela eta ez dela hain luzea izango, denok batera lan egiten badugu. Ni neu prest nago laguntzeko, udala ere gertu dago eta nik uste dut herritar guztiak ere prest daudela”.

Jose M^a Loiti, Arrasateko alkatea
(*Donostia, 1998*)

ezarpen sozial handia ematen diona. AEDren bazkide norbanakoak badira ere, familia bakoitzeko lagun bakarra izaten da AEDren bazkide, familia osoaren ordezkari gisa. Hortaz, bada, hamar familietatik batek partaide bat du AEDren bazkide dena. Bazkideetan ehun baino gehiago dira modu iraunkorrez elkarrekin sail desberdinetan lanean ari direnak eta beste horrenbeste eginkizun berezietan lan egiteko prestatzen direnak.

AEDko bazkideak adin, lanbide eta maila sozial guztietakoak dira eta presio talde indartua osatzen dute, herriko erakunde, elkarte, enpresa eta, oro har, mota guztietako erakundeetako egituretan parte hartzen dutenak. Horrek ekarri du hainbat erakundek halako konpromiso sendoa hartu izana hizkuntzaren normalizazioarekin.


ONESPENA ETA ERRONKAK

AED eredu garri bilakatu da Euskal Herrian. Berrogei inguru elkarte eta beste horrenbeste herri komunikabide sortu dira Euskal Herrian zehar, hementzen irudiko antolaturik. Euskal Herriko eta kanpoko jende asko etorri da Arrasatera, hemengo kasua ezagutzera eta ikastera. Iaz, Gipuzkoako Foru Aldundiak Abadia saria eman zion AEDri, egindako lanaren aitortuz.

Hasiak egin dira eta eginak urregorri, baina ospakizun garai honetan AEDk badu erronkarik aurrera begira. Aurrerantzean erdaldunekin hasi nahi du lanean. Besteak beste, sendotu egin nahi ditu Arrasaten dauden beste erkidego batzuetako kultura elkarteekiko harremanak. Ausardia eta irudimena, beraz, behar du AEDk aurrerantzean ere ametsak egia bihurtzeko.

Joxe Aranzabal

Euskararen kale erabilera Arrasaten



AEDko lehendakariak

AEDk bost lehendakari izan ditu hamabost urte hauetan. Lehen hirurak ez ziren Arrasaten jaiok. Ondorengoak, bai. Oso garai desberdinak tokatu zaizkie bizitzea.



Txomin Otamendi

(1983-1985)

Jaioterria: Orendain

Lana: Lana kooperatibako gerentea



Jesus Garmendia

(1985-1988)

Jaioterria: Azkoitia

Lana: Eskoriatzako Irakasle Eskolako zuzendaria



Jose Mari Muxika

(1988-1994)

Jaioterria: Idiazabal

Lana: Fagorrekoko Personalburua



Miren Arregi

(1994-1996)

Jaioterria: Arrasate

Lana: Udal Euskaltegiko irakaslea



Joseba Ezpeleta

(1996-)

Jaioterria: Arrasate

Lana: Bergarako Udaleko kontu hartzailea

Lehen lehendakaria. Lana kooperatibaren zuzendakari eta Sagrario Mendizabal mondragoetarrarekin zegoen ezkondua. "Otamendiren presentzia garrantzitsua izan zen, oso", dio Iñaki Mendigurenek, "berak ohartarazi zigun komunikabideen garrantzia. Zentzu praktikoa handiko gizona zen". Berari esker, AEDko jendeak atek irekita aurkitu zituen zenbat tokitan: kooperatibetan, adibidez.

Bere garaian jarri ziren AEDren irekitasunaren zutabeak: denok gara euskaldunak, ez jarrera politikoko jakin bati lotuak bakarrik. Baita pragmatismoarenak ere: gauzak egingo badira, egiturak sortu behar dira.

Aurrekoa bezala, kooperatibista zen. Urte emankorrak izan ziren hauek. Nahiz eta udalarekiko harremanak ez ziren bat ere onak izan, garai honetan eratu ziren lan sailak: Euskalan, haurrak, emakumeak, sentsibilizazioa... Azkenean, garai honetan lortu zen Arrasateko Udalak Euskara batzordea sortzea. Baita AEDren lehen etxea izango zena ere: Pablo Uranga kaleko Abaroa zaharra AED eta SDUCen artean banatzeko geratu zen. AEDk bazuen bere txokoa.

Beranduago gauzatu ziren ideia asko garai honetan sortu ziren. Adibidez, Jesusen garaian hasi ziren *Arrasate Press* sortzeko lehen urratsak egiten.

Jose Mariren garaian AED gorpuztu egin zen. Euskara elkartearen erreibindikazioei utzi gabe, lehentasuna eman zitzaion zerbitzuak sortzeari. Horrela, Arrasate Komunikabideak sortu zen; baita Txatxilipurdi elkarte ere. Euskara bultzatzeko Hitzarmena ere orduan sinatu zen.

Lan asko egin ziren Arrasateko Udalarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera.

Garai honetako izan zen, halaber, auzoetara iristeko erabakia. Arrasate Telebista eta *Jazten* aldizkaria sortu ziren. Baita Deba Garaiko euskara elkartearen lanak bateratuko zituen Debagune ere.

Aurretik ezarritako lan jarraipena eman eta sendotu egin ziren sasoi honetan. Mirenek berak aitortzen duenez, "urte oso aberasgarriak izan ziren. Bagenekien zenbat zegoen eginda eta zenbat egiteko. Esperientzia honek erakutsi zidan arlo askotan egin behar delan eta denon beharra dagoela. Baita zein zaila den helaraztea euskaldun aktiboak izan behar gara".

Ekin emakume elkartearen erakundetzea egin zen Mirenen agintealdian. Otaza dorretxea ere orduan hasi zen prestatzen. Geroago Topagunea izango zena ere garai hartan hasi zen zirriborrazten.

Elkarte heldua hartu zuen Joseba Ezpeletak. Oinarri sendoen gainean, tinko dagoen egitura. Iaz Abadia saria jaso zuen AEDk Gipuzkoako Foru Aldundiak emanda. Josebarentzat sari hau "herri ekimenen aitortpena da".

Beste euskara elkarte batzuekin elkarlanean, AEDk Topagunea sortu zuen. Baita, euskarazko herri aldizkarien publikitatea kudeatuko zuen GunePress ere. Garai honetan gertatu da Euskalan elkartearen erakundetzea: "akaso hau izan liteke AEDren lantaldeen erakundetzearen bukaera". Gerora begira, hiru puntu markatzen ditu: "daukagunari eustea, erdaldunekiko harremanei heltzea eta bazkideen artean ilusioa piztea berriro ere".

Ekilore: Deba Garairako lore hornitzailea

Etxezarreta pasatu eta Barrena baino lehen, eskuinera dago Eguzkilore, San Prudentzioren eremuetan. Arrasateko jendea, hala ere, erruz joaten da Eguzkilorera. Autoa uzteko toki handirik ez dute eta lekua ere ez da apartakoa, baina jendeari ez bide zaio inporta.

Lau lagunen artean sortu zuten Eguzkilore, 1990ean, denak oñatiarrak: Iñaki Kortabarría, Mikel Galdos, Scott Stevenson oñatiartutako amerikarra eta Josune Larrañaga. Helburu bat zuten: Deba Garaia hartzea eta enpresa jende gehien zebilen tokian kokatzea. Horregatik, Eroskiko Maxiaren ondoan nahi izan zuten jarri, baina ordurako Eroskik, begiz jota zuen Roneoko biltegi zaharra, gaur egun duen hiperra egiteko. Beraz, ezin lehian sartu erraldoiarekin. Eroskitik hurbilen zegoen tokirik aproposena Barrenakoa zela eta, hantxe jarri zuten denda.

Ekilore izena hautatu



Iñaki Kortabarría eta Josune Larrañaga.

zuten, polita eta esanguratsua iruditu zitzaielako, eta baita gordetzen duen sinbologia-gatik ere. Arrasateko AZK-landu zien irudi korporatiboan (anagrama, letratipoak, pape-rak...) eta hasi ziren lanean.

Barrenan hiru berotegi dauzkate: handiena, 500 metro koadrokoa, kristalezkoa da. Hor barruko landareak, osagarriak eta denboraldiko landareak dauzkate. Beste biak plastikozkoak dira, 200 bat

metro koadrokoak. Horieta kanpoko lorezaintza eta biltegiak daude.

Lore gehien orain saltzen dituzte, udaberrian: salmenta guztien ia erdia. Gabonak ere sasoi ona da. Amaren eguna eta Domu Santuen eguna, berriz, egun bakarreko salmenta handieneko egunak.

Gehien saltzen dituzten loreak denboraldikoak dira: geranioak, petuniak eta alegriak, besteak beste. Batez

ere balkoietan jartzen dira lore hauek.

Barruko loreak Danimarkatik eta Holandatik ekartzen dituzte. Zuhaixxak, berriz, hemendik eta Mediterraneo aldetik. Denboraldikoak, ostera, Astigarragatik.

Normalean jendea joaten da Barrenera loreak erostera, baina enkarguzko loreak ere eramaten dituzte. Horretarako furgoneta bat daukate. Dena den, loreak ezezik, lorezaintzarako osagarriak ere saltzen dituzte: jardinerak, lurrak, ongarriak, gaitzen kontrako tratamenduak, etab. Landare artifizialak eta lore sikuak ere saltzen dituzte, eta asko. Lorerik garestienak orkideak eta arrosak dira. Landaretan, ostera, bonsaiak.

Bezerorik handienak Euskadiko Kutxa, Mondragon Eskola Politeknikoa, Copreci eta Fagor dituzte. Enpresaren kontuak eramateko orde-nadore bat erabiltzen dute eta eurek sortutako programa bat.

AED LEHIAKETA

GALDERAK

- 1.- Zenbat urte betetzen ditu AEDk eta zein da bere leloa?
- 2.- Nola deitzen zaio haurren guneari?
- 3.- Zenbat gune egongo dira Amets Egunean?
- 4.- Zein talde eta Dj egongo dira Monterronen ostiralean?

SARIAK:

Bi sarrera **Amets Gaurako** (Maiatzaren 23an ospatuko den festa erraldoia)
Erantzunak AEDko egoitzan bertan jasoko dira (Pablo Uranga, 4 - Behea).

Irabazlearen izena:
Leire Iriarte



ERANTZUNAK

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____

Izena: _____
Abizena: _____
Telefonoa: _____



Garestia da gida baimena ateratzea Arrasaten

Gida baimena atera nahi duenak gogotik ordaindu beharko du Arrasaten behintzat: batez beste 188.166pta. Hori da Donostiako batez besteko kostua baino 35.000 pta gehiago eta Gipuzkoakoa baino ia 16.500 pta garestiago.

Autoeskola garestienaren eta merkeenaren arteko aldea ere txikia da Arrasaten: 10.000 pta. Hori da arrasatearrek gida baimena ateratzeko orduan aurrera dezaketen diru kopurua. Ez da asko, kontuan hartzen badugu

Donostian garestienaren eta merkeenaren artean dagoen aldea 54.116 pta.koa dela.

Zenbaki hauek jakiteko, Arrasateko autoeskola guztietara deitu izan dugu. Lehen aldiaren gure benetako ize-na eman. Bigarren, *Arrasate Presse*ko kazetariak ginela adierazi genien. Peñakoba izan ezik —telefonoz ez zuela preziorik ematen esan zigun—, gainerako guztiek telefonoz eman zizkiguten prezioak. Biren kasuan, biga-

rren aldiz deitu genuen, aldatu egin behar izan genituen prezioak, bigarrenengoan prezioak askoz ere modu osoagoan eman zizkiguten eta.

Hiru baldintza jarri genituen prezioak eskatzeko orduan: bezeroak 18 urte izatea, 20 eskola ordu praktikoak egitea eta aztertuta lehenengoan gaintzea, gastuak ez gehitzeko. Baten batek praktika ordu gutxiagorekin ateraz gero, merkeago aterako zaio, noski. Gehiago erabiliz gero, berriz, garestiago.

Gida baimenaren kostua Arrasaten

Autoeskolak	Pta.
• Arrasate	190.000
• Larringan	190.552
• Leniz	181.290
• Peñakoba	191.291
• Telleria	187.695

Baldintzak: 18 urte izatea, 20 eskola ordu praktikoak eta lehenen ateratzea.

Euroa

Noiz jakin dezaket zein izango den euroaren truke zehatza pezetatan?

1998ko abenduaren 31ra arte itxaron beharko duzu hori jakiteko, ordurarteko trukea aldakorra izango da eta. Dena den, egun hori baino lehenago baduzu jakiterik, astero-astero orrialde honetan jakinarazten dizugun trukearen bidez.



Euro baten balioa

167,1 PTA

BUENUENA JATETXEA

- Menua eta karta
- Espezialitatea frijitu aukeratuetan



Tel: 943 - 79 79 36
Jokin Zaitegi 8 . ARRASATE



IPUIN LANTEGIA

Titulu eskuragarriak

- Nire Lehenengo Jaunartzea
- Nire Abentura Zirkoan
- Egun Bat Errege Magoekin
- Aladino Eta Biok
- Nire Abentura Olinpikoa
- Egun Bat Zooan
- Nire Bidaia Denboran Zehar
- Pocahontas
- Umetxoaren Ipuina
- Bugs Bunny Basoaren Salbatzaile
- Nire Urtebetetzea Azokan
- Lehoi Erregea
- Maitagarrien Herrialdea
- Eskiari Buruzko Nire Liburua

Etxera eramango dizugu!

Leintzibar, 2 • ARRASATE
Tel: 79 47 54
E-mail.: melices@arrakis.es

Atezaina Errealeko gazte taldean

URTZI AMIANO

“Gazte mailako talde batek irabaz dezakeen gehiena lortu dugu”

— **Gustura zaude lortutakoarekin?**

— Gazte mailako talde batek irabaz dezakeen gehiena lortu dugu eta horrek asko pozten zaitu. Hala ere, publikoagatik izan ez balitz, agian ez genukeen irabaziko jokatutako azkenen partida. Oso luzea izan zen eta ia denok leher eginda bukatu genuen. Hala ere, gola sartu genuenean hasi zen jaia. Gauean ere garaipena ospatzen jarraitu genuen Donostiako kaleetan.

— **Gaztetako azken urtea izanda, nola ikusten duzu hurrengo denboraldia?**


— Ekainaren erdialdera esango digute zer gertatuko den. Gelditzeko esaten badidate, Sansen jokatuko dut, bestela kanpora bidaliko naute.

— **Noiz hasi zinen Errealean jokatzen?**

— Orain dela sei urte hasi nintzen, hamahiru urte nituela.

— **Gogorra izan da entrenatzera Zubietara joan eta Arrasatera itzuli beharra?**

— Lehenengo hiru urteetan Arrasaten entrenatzen genuen inguruko jokalarik guztiak. Azken hiru urte hauetan, berriz, Zubietan. Horrela nahiko zaila da ikasketak eta kirola uztartzea. Datoren urtean gelditzen banaiz, Donostian biziko naiz, Sanseko gainerako jokalariek bezala.



ATLETISMOA Dominak maila guztietan



Oskar Gavilanek

lehen tokia lortu zuen Proba konbinatuetakoa Gipuzkoako txapleketan.

Oskarrek joan den asteburuan Anoetan eta Unben jokatutako ziren jokoetan urrezko domina lortu zuen oktatlo proban. Txapelketa horretan izan ziren gazte mailakoak. Hiru arrasatearrek podiumera igotzea lortu zuten. Lehen tokia, Jonathan Perezek lortu zuen, Bigarrena, berriz, Jon Anduezak. Hirugarren postua Jon Igartuarentzat izan zen. Decatloian, Haritz Barrutiabengoak brontzea eskuratu zuen. 5.000 metroko lasterketan, Jabier Mentxaka izan zen lehengoa. Urrezko domina berarentzat izan zen. Zilarra, berriz, Alfonso Luelmorentzat.

Bestalde, Elgoibarren jokatutako Gipuzako haur txapelketan Jon Duquek bigarren tokia lortu zuen 80 m.ko lasterketan. Proba berean aritu zen Jurdana Aiala ere. Aialak, laugarren tokia eskuratu zuen.

FUTBOLA Bigarrenarekin ezin



Preferente mailako

Mondra taldeak. 2 eta 1 galdu zuen joan den igandean.

Azkoitian aritu ziren arrasatearrak Anaitasunaren aurka. Garaipena lortzeko asmotan abiatu ziren Azkoitira, sailkapeneko bigarren postuari heltzeko beharrezkoa zen eta. Hala ere, Anaitasunak ere mailaz igotzeko aukerak ditu eta etxean jokatzen zuenez, 2 eta leko garaipena lortu zuen. Mondra. Real Union taldearen aurka arituko da asteburu honetan. Mondrakoei garai-

penak baino ez die balio, mailaz igotzeko balio izan dezakeen promozioa jokatutako baldin badu. Jose Mari Barrutiabengoaren mutilek Atxabalpen jokatutako duten azken norgehiagoka izango da igandean arratsaldeko 17:00etan. Emakumeen taldeak bestalde, larunbatean ekingo die Kopako txapelketako partidei. Esti Loitiren neskek Gernikaren aurka jokatuko dute asteburuan. Aurreko itzulian garaipena lortu zuten. Beraz, ez zaie zaila egingo arrasatearrei garaipena lortzea. Norghegiagoka igandean arratsaldeko 10:00etan izango da, Gernikan bertan.

TXIRRINDULARITZA Asier Atxa hirugarren



Fagor taldeko gazteak

Elgoibarren izan ziren joan den asteburuan. Elgoibarko

XVIII. sarian parte hartu zuten Fagorreko txirrindulariek. Asier Atxak hirugarren tokia lortu zuen. Atxak 2 h 30' 31" behar izan zituen lasterketan 101 km.ak egiteko.

JMAko lehen mailako kadeteak Zarautzen izan ziren larunbatean. 98 txirrindularitik 63 baino ez ziren helmugaratu. Bigarren mailako kadeteak Urnietan izan ziren igandean. Iker Bernalek ihes egin zuen, baina azkenean ezin izan zuen lasterketa bukatu. Asteburu honetan, larunbatean Itsasondan egingo den erlojuaren kontrako proba jokatuko dute. Lasterketa taldekako erloju kontrako Gipuzkoako probetarako baliogarria izango da. Igandean, berriz, Donostian jokatuko den Juanjo Zabal IV. Memorialean izango dira. JMAkoak Urretxun eta Elgoibarren izango dira. Haurrak Mutrikura abiatuko dira larunbatean.



Irabazle ugari izan ziren Oñatiko helmugan

157 lagun Arrasate-Oñati lasterketan

Arrasate-Oñati lasterketaren XVI. edizioa jokatu zen joan den igandean. Aurreko urteetan baino jende gutxiagok hartu zuen parte, Laixanekoek adierazi digutenez "Donostian jokatu zen Egunkariaren aldeko krosa ere igandean izan zen eta jende asko hurbildu zen Donostiara".

178 lagunek eman zuten ize-nakrosean aritzeko, baina abia-

puntuan 157 lagun izan ziren.

Helmugan Miranda de Ebrotik etorri zen Gustavo Pastorrek lortu zuen garaipena. Lehenengo arrasatearrak senior eta beteranoen mailan aritu ziren: emakumeen artean Antonina Pachok lortu zuen garaipena eta gizonekoetan, berriz, Jose Luis Ugalde izan zen.

Jantzi Kirola Euskaraz!

lelopean egin zen lasterkefan, AEDK ere sari bereziak banatu zituen korrikalarien artean. Helmugaratu zen lehenengo bazkidearen oroigarria Agustín Berezibarrek eskuratu zuen.

Laixanek antolatzen duen lasterketan toki askotako jendea bildu zen. Arrasateko Portaloiko irteeran, Hendaia, Miranda de Ebro, Logroño, Donostia, Elorrio, Tolosa eta

Gasteizko korrikalariak bildu ziren, besteak beste. Baina baidarako jendea ere gerturatu zen, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara, bai eta Legazpia, Urretxu, Soraluze eta beste hainbat herritatik etorritakoak ere. Aurreko edizioetan baino jende gutxiago aritu bazen ere, giro polita izan zuten korrikalariak, eguraldiak ere lagundu egin zuen eta.

Erroren jokalariak Musakolan

Musakolako jaietan antolatutako pilota txapelketak ikusmin handia sortu zuen joan den asteburuan. Langa eta Faustoren arteko norgehiagokak eman zion hasiera txapelketari. Bi beterano hauen arteko partida, Langarentzat izan zen, 22 eta 13 irabazi zuen eta. Artekariak ere izan zen Musakolako pilotalekuan. Fausto zen faborittoa baina Langak ez

zuen amore eman eta garaipena lortu zuen. Bigarren neurketa Txispas eta Ikutixo, Beitia eta Vitoriaren aurka izan zen. 22 eta 18 amaitu zen norgehiagoka, Txispas eta Ikutixoren alde. Bigarren neurketan, apustuak Txispas eta Ikutixoren aldekoak izan ziren eta azkenean irabazle ugari egon zen, beraiek eskuratu baitzuten txapela.



Txispas, Ikutixo, Txanpl, Beitia eta Vitoria.

EDUARDO ARZAMENDI (ARRASATE MUSIKALEN BANDA)

“Aitarentzat berezia izan da ni”

Arrasaten eta musikaren esparruan Arzamendi abizena ez da nolanhikoa. Pisua eta indarra duen abizena da. Duela denbora gutxi arte Arzamendi abizenaren aurretik Juanitoren izena zihuan, baina hemendik aurrera beste izen bat entzutera ere ohi-tuko gara. Eduardo. Eduardo Arzamendik bere bidea egin du musikan. Gaur egun, Arrasate Musikalen Bandako zuzendaria da. Hala ere, aurrera segitzen du musika ikasketekin.

— Musika ogibide bezala aukeratzea etxetik dakarzun gauza da?

— Bai, noski. Nik beti izandut musika erreferentzia moduan. Baina egia esan, ikasketak amaitu eta unibertsitate-ra joan behar nuenean, beldurtu egin ninduen musika ogibide bezala aukeratzeak. Oso zaila da musikatik bizitzera. Horregatik musika ikasketekin aurrera segitzea erabaki nuen. Enpresa ikasketak ere hasi nituen Donostian. Baina horrela bi urte besterik ez nituen egin. Musika oso gogorra da, eta ezin izan nituen gauza biak batera aurrera eramanean. Azkenean, beldurrak eta zalantzak gaudituz, gogoko nuena, musika, aukeratu nuen. Ez naiz erabakiaz damutzen.

— Segitzen duzu ikasten?

— Bai, musika ikasketak amaiezinak dira. Orain Donostiako kontserbatorioan orkestra zuzendaritza eta konposaketa ikasten ari naiz. Pia-

no karrera amaitu nuen eta biolontxeloan seigarren kurtsoa egiten ari naiz. Gaur egun ikasketak lanarekin uztartzen ditut.

— Gustura zabilta Arrasate Musikalen Bandako zuzendari moduan?

— Oso pozik nabil. Ez zen erabaki erraza izan bandako kargua hartzea. Hasieran kezka ugari eta beldurra ere izan nituen. Erantzukizun handiko gauza zen. Azkenean jendeak izugarri anima-



“Hasieran beldurtu egin ninduen musika ogibide bezala aukeratzeak. Gero konturatu nintzen musika dela nire grina eta hori dela egin nahi dudana”

bandako zuzendaritza hartzea”

tu ninduen, eta makila hartzea erabaki nuen.

— **Aitak animatu zintuen bandako zuzendaritza hartzea?**

— Bai. Egia esan, uste dut neurri handi batean beragatik hartu nuela azken erabakia. Aitarentzat banda izan da dena. Urteetan bera izan zen bandako zuzendaria, eta gero bada, tira. Utzi egin behar izan zuen. Beretzat oso berezia izan da nik lekukoa hartzea.

— **Konparazioen beldur zara?**

— Ez, nik badakit non nagoen ni eta aita non. Badakit normala dela jendeak konparazioak egitea, baina ez da beldurtzen nauen zerbit.

— **Musikarekin hezi eta hazi den familia zarete?**

— Bai, nik haurtzaroko oroitzapenetan beti gogoratzen ditut musikaren inguruko sola-

saldiak. Musikarekin bizi izan gara familian, eta ilusio hori helarazi digute seme-alabei. Uste dut haurrak musikan hezitzea garrantzitsua dela.

— **Musikak zer eragin du heziketan?**

— Musikak sentiberatasun berezia ematen du. Bestelako ikasketa batzuek eskaintzen ez dituzten alderdiak jorratzeko balio du musikak. Pertsonaren alderdi asko lantzeko balio dezake. Gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio musikari haurren ikasketetan. Derri-

gorrezko ikaketetan musikak gero eta pisu handiagoa du, eta gero eta hobeto ematen da. Hala ere, egiteko asko dugu oraindik.

— **Nola ikusten duzu musikaren egoera Arrasaten?**

— Arrasate musikan beti izan da mugari garrantzitsua. Udal Bandak ikaragarriko indarra izan zuen urteetan. Gaur egun ere uste dut primerako maila dugula. Hor dago Arrasate Musikal, eta hortxe dabiltzan taldeak. Ikaragarria da zenbat jende egi-

ten dituen musika ikasketak herrian, eta adin guztietakoak gainera. Jakina! Goikobaluren lana ere miresgarria da. Beraz, uste dut Arrasatek baduela musikarekiko joera berezkoa.

— **Nolakoak dira zuk sortzen dituzun doinuak?**


— Uste dut badudala horrelako joera triste bat, malenkoniatsua. Aitaren eragina izan liteke agian, honek ere melodia gehienetan kutsu tristea, nostalgikoa du. Eta nik uste dut, beste horrenbeste egiten dudala.

— **Arrasateko herriarentzat piezaren bat sortu beharko bazenu, zer nolako doinuak izango zen?**

— Zerbait gogorra izan beharko litzateke. Hori argi dut. Herriko jendearen isla izango litzateke, indarra duen zerbit. Baina doinu tristek ere izango litzuzke. ■

“Gaur egun primerako egoera bizi dugu musikaren inguruan. Arrasate Musikalek eta Goikobaluk jende asko eta maila onekoa mugitzen dute”

OPEL ASTRA BERRIA

OPEL 



TAKOLO AUTOAK

Zatoz OLA eta TAKOLO kontzesionarioetara eta probatu

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tel.: 79 05 86 ARRASATE

Zoroklasikoak: 100 irratsaio musika klasikoaz gozatzen


Musika klasikoa gure inguruan dabil uneoro, nahiz eta gu konturatu ez, edo zer entzuten dugun ez badakigu ere. Repsol gasolina iragartzeko Carmina Burana opera erabiltzen da, Scottex paperaren iragarkian Mozarten meza edo ezta saldu nahi dutenean Vivaldiren Lau Urtaroak. Gutariko gutxi dira iragarkietan edo filmetan entzuten diren doinu horiek ezagutzen dituztenak.

Zoroklasikoak saioa egiten dutenek hau guztia aldatu nahi izan zuten irratsaioarekin hasi zirenean. Duela hiru urte eta erdi, Inazio Olaizola, Eugenio Etxebeste, Juan Garai eta Eusebio Iñarra elkarrekin ziren Arrasate Irratian musika klasikoaren inguruko saioa egiteko.

Musika klasikoak ustez duen seriotasuna eta astuntasuna alde batera utzi nahi zuten. Beren asmoa zen musika estilo hau jendearengana hurbilaztea, umoreaz baliatuz. Horrela jaio zen Zoroklasikoak.

Ordudanik gaur arte, gurekin izan dira 100 larunbatean, musika mota hau gozarazten.

Eusebio Iñarrak musiko euskaldunak eta Guridi adibidez, ditu gogokoen. Bera arduratzen da estilo honetako doinuak aurkezteaz. Ope-



Zoroklasikoak larunbatetan izaten da, goizeko 11:00etatik 12:00etara Arrasate Irratian.

ra Inazio Olaizolaren lana da. Historiako opera nagusiak eta jendeak horrenbeste ez ezagutu arren, merezi duten horiek ekarri ditu mikrofonoetaraino Olaizolak. Eugenio Etxebestek, berriz, nahiago du musika barrokoa.

Entzuleek musika hauek ezagutuko dituzte, baina beti lagun arteko giroan. Entzuleak ongi pasatzea da zoroklasiko hauek nahi dutena, jendeak larunbat goizean une atsegin bat igarotzen duen bitartean, musikaz ikastea. Erakutsi nahi dute musika kla-

sikoa ez dela zertan aspergarria izan behar.

Bide luzea da Zoroklasikoak irratsaioak egin duena. Hiru urte mikrofonoen aurrean asko da. Hau da Arrasate Irratiko saiorik zaharrena. Aurkezleek onartzen dute nekatuta daudela. Eugenio Etxebestek dioenez, "lan gogorra da eta ni neu oso nekatuta nago. Datorren denboraldia ez dakit gai izango naizen aurrera egiteko saioarekin". Irratsaioa aurkezleek diotenez, gogorrena jendearen partehartze urria da.

Entzuleek gutxitan deitzen dute programara eta honek itzali egiten du aurkezleen motibazioa.

Dena den, Inazio Olaizolak dioen moduan, "kalean badago jendea esaten dizuna, 'zein ongi pasa nuen beste egunean zuei entzuten'. Egiten dugunak merezi duela esan nahi du horrek, eta aurrera egiteko indarra ematen digu".

Baina, tira, espero dezagun zoroklasiko hauek indarririk ez galtzea, eta Arrasate Irratian larunbatero entzuten jarraitzea.

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

EXPRESS
Kafetegia
Maala arrabala, 8
Tel.: 943 - 77 13 87

DOKE
Kafetegia
Garibai, 6 behea
Tel.: 943 - 77 17 53

beatriz
oinetakoak
eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

BEGOÑA VICARIO, ZINEGILEA

“Nire filmetan gustatzen zait ikusleek nahi dutena interpretatzea”

Euskal Zinearen Gaua egingo da ostiralean Amaia Antzokian. Sei film labur ikusiko dira. Hauetariko bi Begoña Vicario zinegilearenak: “Geroztik ere” eta “Zureganako grina”. Begoña Vicariok animaziozko film laburrak egiten ditu. “Zureganako grina” rekin lehenengo saria irabazi zuen Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bileran. 97. urtean Goya saria eskuratu zuen “Pregunta por mí” film laburrekin.



aurkituko. Nire filmetan gustatzen zait jendeak bere interpretazioa egitea. Film abstraktuak dira, norberak nahi duena pentsatzeko.

— Zure film laburrak animaziozkoak dira. Zer teknika erabili dituzu?

— Animaziozko filmak egiteko hainbat teknika daude. Nik film hauetako batean fotokopiak erabili ditut. Bestean hondartzako harearekin osatu dut film laburra.

— Garai batean zinean filmaren aurretik film laburrak ikusten ziren. Baina gaur egun, non ikus ditzakegu?

— Jaialdietan ez bada, oso zaila da. Francoren garaian lege batek zioen filmaren aurretik zerbait laburragoa ikusi behar zela. Orduan No-Doa izaten zen. Franco hil zenean legeak indarrean jarraitzen zuen, eta film laburrak hasi ziren ematen zinean. Horrela izan zen Europako Batasunean sartu ginen arte, orduan desagertu baitzen legea.

— Ez duzu pentsatu film luzerik egitea?

— Ez. Niri gauzak argi eta labur esatea gustatzen zait.

— Zer ikusiko dugu ostiralean?
— Zineaz hitz egiten dugunean, oso erreferentzia gutxi izaten ditu jendeak. Zinea entretenimendu moduan ikusten du soilik. Gehienek Estatu Batuetako estudio handiek egindako filmak ikusten dituzte. Zinema komertzialaz hitz egiten ari naiz. Baina ikusleak jakin behar du zinema komertzial horretaz gain, badagoela beste zine mota bat. Ostiralean jendeak ez du zine komertzialik aurkituko.

Ez du aurkituko denborapasa edo entretenimendu hutserako eginiko filmik. *Autore zinema* edo *zine experimental* izenez ezagutu dena ikusiko du.

— Zer harrera espero duzu izango dutela film laburrek?

— Film hauek, nire film laburrak behintzat, beste jarrera batekin ikusi behar dira. Nik kontatzen dudanari ez zaio eskatu behar egitura narratiborik. Ez da zine komertziala. Zine esperimentalak zine komertzialerako balio ez duten elementuekin jokatu behar du. Horregatik aulkian eseritzerakoan, jakin behar dute ez dutela betiko zinean ikusten dena

“Ikusleek jakin behar dute gure filmetan ez dutela zine komertzialean ikusten dena ikusiko”

EMAKUMEON TXOKOA

IKASTAROAK

AUTOESTIMUA

Ezagutza pertsonalari buruzko ikastaro hau maiatzaren 25etik ekainaren 19ra arte izango da.

Emailea: Pepa Bojó
Argibideak: 79 09 00
Emakume Saila

BESTE

IKASTAROAK

Ekin eta Familia eta Gizarte Heziketarako Zentruak hainbat ikastaro antolatu dituzte.

Argibideak:

- Ekin (77 12 28)
- Zentrua (79 04 59)

LEHIAKETAK

KOMIKI EZ SEXISTEN I. LEHIAKETA

Lehen saria: 70.000 pta. Emakume eta gizonen arteko aukera eta tratu berdintasuna hobeto lantzen duenarentzako saria: 50.000 pta.

Gazte Saria: 25.000 pta. Euskara Saria: 25.000 (gehigarria)

Lanak aurkezteko azken eguna: uztailaren 13a

ZERBITZUAK

Emakume Sailak emakumezkoei zuzendutako hainbat zerbitzu ditu. Argibiderik edo laguntza behar baduzu, zuri laguntzeko gaude.



79 09 00

Emakume Saila

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

Etxebizitza salgai San Joan etxemultzoan. Tel.: 943 - 79 98 77.

3. Errentan emateko

- Peñiscolan bungalowa alokatzeko. Hondartzaren ondoan dago. Denontzako igerilekua dauka. Tel.: 943 - 27 01 37.

- Etxebizitza Torre viejan eta bungalowa Santa Polan alokagai. Leku onean, hondartzatik hurbil. Tel.: 943 - 79 32 54.

- Donostian etxebizitza alokagai udarako. Tel.: 943 - 76 02 00.

- Torre viejan 4 laguntzako apartamentua alokagai. 2 gela. Igerilekua, hondartza ondoan, igogailua, ikuzgailua. (San Joanetako astea 40.000 pta). Tel.: 943 - 79 53 18.

- Torre viejan etxebizitza alokatzen da 15 egun edo hilabeterako. Hondartzatik hurbil. Jantzia dago. Tel.: 943 - 78 14 72.

4. Errentan hartzeko

- Gela baten bila nabil Arrasaten. Tel.: 94-41 62 675. Inñigo galdetu.

- Bi logelako etxebizitza hartuko genuke alokairuan, Arrasaten. Tel.: 939 57 45 31 (Nekane, Unai).

- Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten, ahal dela jantzi gabe. Tel.: 943 - 79 93 05.

- Bi logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan. Tel.: 943 - 77 13 87.

- Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Tel.: 943 - 77 13 20. Ainhoa.

5. Etxe konpartituak

- Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Logela aparte izango du. Interesatua baldin bazaude, etorri ikustera: Bañez doktorea, 2. 3. ezkerria.

- Gela bat alokatzen da San Andresko etxebizitza batean. Uztailaren erdialdera arte. Tel.: 943 - 79 98 70. Txema.

- Arrasateko alde zaharrean gela bat dugu alokatzeko. Berrigehiagorako, deitu gaez 943 - 79 96 79 telefonora. Jose Luis.

ETXEBIZITZAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Etxe konpartituak
- Bestelakoak

GARAJEAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

- Saldu

- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LANA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

MOTORRA

- Saldu

- Erosi
- Bestelakoak

DENETARIK

- Saldu
- Erosi
- Trukatu
- Eman
- Hartu
- Galdu
- Aurkitu
- Bestelakoak

HARREMANAK

- Agurrak
- Harremanak
- Deialdiak
- Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

- Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 943 - 79 19 64.

LOKALAK

12. Saldu

- Abian dagoen negozioa salgai. Tel.: 943 - 79 34 01.

- Taberna salgai. Tel.: 943 - 77 02 11.

14. Errentan emateko

- 130 m²ko behe komertziala alokatzen da Izarra dorrean. Tel.: 79 25 26.

- Eskatu pabilioian garajea alokatzen da. Tel.: 943 - 79 59 08.

15. Errentan hartzeko

- Gazte talde batek lokala errentan hartuko luke. Tel.: 943 - 79 53 18. Asier.

LANA

17. Eskaintzak

- Emakumea prest etxeko lanak egin eta umeak nahiz nagusiak zaintzeko. Arratsalde. Tel.: 943 - 79 07 73.

- Etxeko lanak egin edo pertsona helduak zainduko nituzke. Tel.: 943 - 79 47 29. (12:00etatik 15:00etara).

- Neska arduratsua eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko edo umeak zaintzeko. Tel.: 943 - 71 53 74. Deitu goizean edo arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

- Andra euskaldunak etxeko lanak egin, eta umeak eta pertsona nagusiak zainduko lituzke. Arratsaldean lan egingo luke. Tel.: 943 - 79 07 73.

- Espesientziadun klinika laguntzailerak pertsona helduak zainduko lituzke, etxeetan edo ospitalean, gaez ere bai. Tel.: 943 - 79 34 09.

- Taberna bateko barran lan egiteko zerbitzaria behar da. Tel.: 943 - 77 17 53.

18. Eskaerak

- Pertsona bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.:

943 - 77 04 61.

- Neska bat behar da bi ume zaintzeko. Tel.: 943 - 79 78 65. Deitu 20:00etatik aurrera.

- Taberna bateko barran lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 943 - 79 68 57.

- Neska gertu atariak garbitzeko. Tel.: 943 - 79 20 55. Arantxa.

- Arrasaten emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Tel.: 943 - 79 11 57 / 943 - 79 24 33

- Lanak ordenadorez pasatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 - 79 07 73.

- Ume bat zaintzeko emakume bat behar da Aramaion. Tel.: 929 - 42 23 14. Deitu 21:00etatik aurrera.

- Neska prest ile apaindegian lan egiteko. Tel.: 943 - 79 53 57. Goizez edo gaez.

- Emakume behar da umeak zaintzeko. Tel.: 943 - 77 06 50. Gaez deitu.

- Turismen lizentziatutako neska euskalduna, ingelesa eta frantsesa ere menderatzen ditu, lanerako prest.

19. Denetarik

- Enkarguzko margolanak (koadroak) egiten ditut. Argibideak 943 - 77 01 07 telefonora deituta. Ana.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- DBH eta LOGSEko eskolak ematen dira. Talde txikiak eta irakasle esperientziadunak. Tel.: 943 - 79 56 78.

- Edozein lehiaketatan parte hartu edo Zuzenbideko ezaguera praktikoa izan nahi duten lizentziatuei (edo azken urteko karrerako ikasleei) zuzendutako praktikak eskaintzen dira. Tel.: 943 - 79 13 09 (13:00etatik 14:00etara).

21. Eskaerak

- LOGSEko 1. mailako ikasle batek matematikako eskola partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 943 - 79 68 84.

- Biologiako ikasleak matamatika eskolak behar ditu. Tel.: 943 - 79 42 64. Deitu gaezko 22:00etatik aurrera.

• Ingeleseko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 - 79 99 41. Beatriz.

MOTORRA

23. Saldu

• Citroën C-15 RE Club salgai. SS-AL. 78.000 Km. 650.000 Pta. Tel.: 943 - 77 07 42.

• Cady motorra salgai, egoera onean. Prezioa ere ona. Tel.: 907 - 94 06 67.

• Motorra salgai. Yamaha berezia 250. Oso egoera onean. Tel.: 943 - 77 05 14. Asier.

• Nissan Terrano edo Ford Maverick autoen llanta orjinalak salgai. Laurak 15.000 pta. Tel.: 943 - 79 40 58. Maider.

• Erremolke eta kanpadenda salgai. Alpen-kreuzer allure modelokoa. Nahiko berria. Tel.: 943 - 79 37 60.

• BI - BF matrikuladun autoa salgai. 110.000 km. ditu eta dieselduna da. Tel.: 943 - 76 09 12.

• Yamaha TZR 80 RR salgai. 17.000 km. VI - O matrikula. Tel.: 943 - 79 76 64.

• Lau pertsonarentzako kanpin erremolke salgai. Aurrerapena (avance) eta sukaldea dauzka. Egoera oso onean. Prezioa 125.000 pta. Tel.: 79 49 28.

• Lekuz aldatzeagatik autoa saltzeko presa dut. Ford Escort L. Tel.: 943 - 71 53 00.

• Peugeot 205 gorria salgai. Eguzki sapaia dauka. Tel.: 943 - 76 21 70 / 943 - 77 12 04. Deitu gaueko 20:00etatik aurrera.

• Ford XR-2 salgai. Berri-berria. 250.000 pta. Tel.: 943 - 79 80 44 Lutxi.

DENETARIK

26. Saldu

• Macintosh ordenadorea salgai. Centris 650 modeloa. 12 mega RAM. 80 megako disko gogorra. 7.1. Sistema. Tel.: 79 97 60.

• Autoaren barruan eramateko umeen aulkia salgai. Tel.: 79 44 14. Lane-gunetan 19:00etik aurrera; asteburuetan eguerdian.

• Soinua salgai. Berria. Dimai markakoa eta tekladuna. Tel.: 943 - 79 86 59.

• Dainesse markako motor trajea salgai. Berria. 50 tailaduna. Tel.: 943 - 79 76 64.

• Hi-Fi bozgoragailu bi salgai, Avid markakoak. 15 - 150 watio, 92 dB - W - m. Tel.: 943 - 79 76 90.

• Logela salgai. Armairu bat, kabezero bat, bi mesanotxe. Tel.: 943 - 77 15 84. Gaez.

• Motorrean ibiltzeko larruzko jaka salgai. Tel.: 943 - 79 40 58. Maider.

• Bi hilabeteko txakurkumea salgai. Hasky siberiarra. Tel.: 943 - 77 17 82.

27. Erosi

• Bigarren eskuko kafe errotaxoa erosiko nuke. Tel.: 943 - 79 23 58.

• Ehiza txakurrak eramateko bigarren eskuko eskorga merkea erosiko nuke. Tel.: 943 - 78 34 64. Migel Angel.

• Disko txikiak eta handiak erosten ditut. Tel.: 943 - 52 65 77.

29. Eman

• Bost hileko txakur mestizoa opa-

rituko nuke, ondo zaintzekotan. Tel.: 943 - 79 90 46.

31. Galdu

• Pepe jeans markako jaka beig panaduna galdu da. Aurkitu duenak, mesedez deitu. Tel.: 943 - 79 01 59.

• Eroskiko aparkalekuan 20 konpaktu zituen poltsa bat galdu nuen. Topatu duenak dei egin dezala mesedez, eskertuko da eta. Tel.: 943 - 74 14 71.

• Betaurreko graduatuak galdu ditut. Deitu 943 - 77 05 23 telefonora.

• Mutiko baten betaurrekoak, graduatuak eta montura marroia dutenak topatu badituzu, deitu mesedez telefono honetara: 943 - 79 85 25

32. Aurkitu

• Errealaren elastikoa aurkitu dut Zigorrolako kiroldegian. Tel.: 943 - 77 10 59.

37. Bestelakoak

• Artzain txakur aleman emea bilatzen ari naiz, nirearekin ernaltzeko. Nirea artzain txakur aleman-altsaziarra da. Tel.: 943 - 79 03 37 edo 943 - 79 36 12.



Zatoz eta ezagutu gaitzazu!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

VOLVO

Auto Suecia



mazda



GALOPER



Co-Car, S.L.



HYUNDAI



MITSUBISHI MOTORS

Aldi/bi autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 71 20 02 / Faxe: 79 65 65

Ametsa Eraikiaz Doa

@mets gaua

Amets eguna

Maiatzak 24, Igandea
Goizeko 10:30etatik aurrera

Monterron parkean
Maiatzak 23, Larunbata
Gaueko 10:00etatik aurrera

Arrasate Dj

NAUN

(Donostia)

Imanol Dj

2KATE

(Donostia)

Arrasate Dj

EKON

(Arrasate)

Imanol Dj

Musika motak: Ambient, Jungle, House, Techno, Dub.....

Proiekzioak (Bartzelona)

Impaktes Visuals

Zaldibar gunea

10:30etatik aurrera Kale animazioa

• Zarpartzarrak • Kalejira trikitilariekin • Txaranga

12:00etan Aurrezpen ekitaldia

• Herrialde desberdinetako dantzak eta jaki dastaketa
• Bertsolariak

14:30etan Bazkari herrikoia trikitilariekin alaitua

18:00etatik aurrera ETZAKIT musika taldea

Jokin zaitegi barruko gunea

17:00 etan IPARRALDEKO HERRI KIROLEN ikuskizuna

Partaideak: Lapazaran - Arrate eta Mugartegi- Gotzon Mugarza I

Probak: • Lastoa jasotzea

• Trontza

6 metrotara

• Aizkora 2 korte 6 metrotako alturan

• Lastoa botatzea alturan

• Junguria

• Sakuak bizkarrean dituztela karrearak

• Gurdia

18:30etatik aurrera SALTSA, MERENGE, TANGO, BALS,...

IKASTARO eta DANTZALDIA

Dantzariak: • Julio Lantigua • Natalio Maiztegi

... eta Jarraitzaileak

Jokin zaitegi kanpoko gunea

11:00etatik aurrera TXIKITXOKOA egun osoan zehar

• Kars-ak

• Monky gaztelua

• Eskulan txoloa

• Zezen mekanikoa

• Pelotadun etxetxea

• Musika alaita

• Trentxoa

• Gaztelu animatua

• Goxotxoko

• Igel puzgarria

• Amonamantangorri

• ...

Biteri gunea

13:30etan TRIKIMAILU EXPRES taldearen haur berbena

17:00etan Arrasateko NOMEN taldea

19:30etan LORELEI musika taldea

Arrasateko erdigunea



Arrasaten • 1998ko maiatzak 23/24



Festagiroa izango da nagusi Amets Egunean.

Programazio berezia AEDren 15. urteurrenerako

Arrasate Telebistak eta Arrasate Irratiak saio bereziak antolatuko dituzte AEDren 15. urteurrenerako.

Arrasate Telebistak larunbatean Monterronen egingo den *Amets Gaua* osorik grabatuko du eta ordu bete t'erdiko programa bat osatuko du han harturiko irudiekin. Saio hori igande gauean emango da, gaueko 22:00etan. Asteazken

gauean eta ostegun goizean ere errepikatu egingo da.

Igandeko *Amets Egunari* dagokionez, ATBk bi talde osatu ditu, festalekuan egongo diren lau guneen berri jasoko dutenak. Talde bien lanak *Amets Eguna* izeneko saioa egiteko balioko du. Saio hori igandean emango da, gaueko 21:00etan eta ordu beteko iraupena izango du. Astelehenean, astearte-

an birritan eta asteazken goizean ere errepikatuko da.

Arrasate Irratiak ere bertokia izango du festagunean. Hogei bat lagunek parte hartuko dute goizeko 10:00etan hasi eta jai bukatu bitartean irauko duen zuzeneko irratisaioan. Uhinetan entzun ahal izango den gehiena festagunearen megafoniako berbera izango da.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 23	ASTELEHENA, 25	ASTEARTEA, 26	ASTEAZKENA, 27	OSTEGUNA, 28	OSTIRALA, 29
Asteazken zehar eskainitako programa interesgarrien errepika. 13:30 Kukaratxa motel 14:15 Astebete 14:45 Munduari bueltak . Fernando Oregik azalduko du India eta Nepalera egindako bidaia.	13:30 Amets eguna . (Errepika) 20:00/20:30/21:00 Berriak . 21:30 Mondrasport . Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak... eta lehiaketa astelehenero.	13:30 Amets eguna . (Errepika) 20:00/20:30/21:00 Berriak . 21:30 Amets eguna . (Errepika)	13:30 Amets eguna . (Errepika) 20:00/20:30/21:00 Berriak . 21:00 Amets gaua . (Errepika)	13:30 Amets gaua . (Errepika) 19:15 Kukaratxa Motel . Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gaztetxotzakoko lehiaketa umoretsua. 20:00/20:30/21:00 Berriak . 21:30 Kukaratxa Motel .	13:30 Kukaratxa Motel . Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gaztetxotzakoko lehiaketa umoretsua. 20:00/20:30/21:00 Berriak . 21:30 Astebete
IGANDEA, 24					
21:00 Amets eguna AEDren festa berezia 22:00 Amets gaua AEDk eraritutako musika emanaldia					

Arrasate Irratia 107.7 FM

LARUNBATA

9:00 **Egunaren harian**. (albistegia)
9:30 **Musika**
10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte, Garbiñe Perez eta Belen Aranbarrekin.
11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoa, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaizola eta Eusebio Iñarrarekin.
12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA

GOIZ-EGUARDIZ

9:00 **Egunon Arrasate**. (albistegia)
9:30-11:00 **Goizoro**.
11:00-13:00 Gaueko programen errepikapena.
13:00-14:00 **Goizak gaur**. (Euskadi Irratia).
14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena

20:30-21:00 **Iluntzean berriketan**.
21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe, Belen Carenas eta Rafa Mungiarekin.
22:00-23:00 **Soloik Solo**.

Astearte

20:30-21:00 **Iluntzean berriketan**.
21:00-22:00 **Hitz ta Ekintza**.
22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte, Dabid Iglesias eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena

20:30-21:00 **Iluntzean berriketan**.
21:00-22:00 **Musika**
22:00-23:00 **KK2A**.

Osteguna

20:30-21:00 **Iluntzean berriketan**.
21:00-22:00 **Kaleko Hautsak astinduz**.
22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaittin Allenderekin.

Ostirala

20:30-21:00 **Planning Prest**.
21:00-22:00 **Music Box**.
22:00-23:00 **Txerrendantza**
23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika.



Argazkian dituzuenak, Ascension Gure Amaren eskolako ikasleak dira, gaur egun San Viator Txiki. 1947. urtea zen eta ikasturtea bukatuta, jaiatu opatu zuten.

Gerra aurretik Burgosetik zazpi moja etorri ziren Arrasatera eta, Maria Bartolome Ama buru zelarrik, eskola sortu zuten. Zazpi lekaiume horietatik, bakarria geratzen zen bizirik: Paz Garcia ama, baina joan den maiatzaren 11n hil zen Madrilan, 98 urte zitue-

la. Joan den astean, lehen ikastetxeko kapera eta orain San Andresko parrokia denean egin zuten meza haren omenez.

Argazkian, ikasleen artean hiru moja: Angeles Errazu ama, Paz Garcia ama eta Karmen Zendokiz ama.

Argazkia eta berriemilea: Arantza Alonso

LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak aldi baterako lanpostu hauek bete nahi ditu:

- **Informatika monitorea**
- **Fotokopiagilea** egun erdiz (elbarrituentzako bakarrik).

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke.

Izena emateko azken eguna: ekainaren 1a, berau barne.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■



ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Poligonoa 4, EQ- 11 • ARETXABALETA
Tel/fax. 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 79 74 26



M
Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

TTUKUN


Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62



TOTEM OINETAKOAK

BODY PIERCING



TATUAJEAK

- Behin erabili eta botatzeko material klinikoa
- Diseinu aukera zabala
- Bitxitegi profesionala: altzairu kirurgikoa, titanioa eta abar

Olarte, 41 • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 49 72a

betaurrekoak

guztion

gustukoak

Bi lagunentzako bidala zozkatuko dugu.

Zatoz gurekin Tenerifera!



Aukeratu zure betaurrekoak, jaso zure txartela eta har ezazu parte bidala baten zozketan



opari txartela

ziurra





Kalitatea saltzen dugu.

INSTITUTO OPTICO Erdiko kale, 22 20500 ARRASATE 79 71 68	INSTITUTO OPTICO Andra Mari, 8 48200 DURANGO 94 6202986
INSTITUTO OPTICO Hiper Eroski 20500 ARRASATE 79 78 26	INSTITUTO OPTICO Grupo San Ignacio, 3 48200 DURANGO 94 6818492
OPTICA GARAGORRI Iturriotz, 29 20500 ARRASATE 79 16 98	INSTITUTO OPTICO Erdiko kale, 21 20830 MUTRIKU 943 60 31 54

foto zaharra

¡NABARMEN ZAITEZ!




CORSA MUNDIAL BERRIA (EDIZIO BEREZIA)

Opel Corsa Mundial, nabarmenduko zaituen ekipamenduarekin
Direkzio lagundua, aleaziozko llantak,
atzeko Spoilerra hiru ateko autoan, tapizeria eksklusiboa.

Benetan berezia. Opel Corsa Mundial
berria kalean da.

Nabarmen zaitetz **zure bizitzako motorrarekin.**

OPEL 



PATROCINADOR OFICIAL

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tels.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3.(Eskatu pabilioia).Tel.: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK